

TOKIKOM

2017ko urtarrila | 166. zenbakia

# aitzar!

txorierrak lizkaria

Etxahun Lekue

# Txapelatik haratago

GARBIÑE BIURRUN | HARD CORE. EXE | TALDEA | JOANA LARAU | RAREN | BILBIDEA





–Udalekuak  
–Ponyak  
–Urtebetzeak  
–Jaialdiak

–Terapiak zaldiekin  
–Haurrentzako ekintzak  
–Ibilaldiak  
–Hastapen ikastaroak  
–Alokairuak



-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Juan Luis Mentxaka
-  **12** Gurean izan da... Garbiñe Biurun, epailea
-  **14** Gazteak eta... Ugaitz eta Larraitx, pilotuak
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Etxahun Lekue, bertsolaria
-  **24** Laguncar
-  **26** Gure musika... Hardcore.exe taldea
-  **28** Baserri mundua... Joana Lara, karakolgilea
-  **30** Taldeak... Txorierri ehiza elkarteak
-  **32** Txorierri ezagutu... Uraren ibilbidea
-  **34** Teknologia... Izpiritu kritikoa
-  **35** Aikorrizketa... Dan-dana ez da tan-tana
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Garbiñe Biurun, epailea



28 Joana Lara, karakolgilea



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

**aikor!**  
txorierriko aldizkaria

**Argitaratzailea:** TOTOAN,  
Txorierriko Euskara Elkarte  
Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta,  
Arrekil, Tximintx eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35  
aikortxori@aikor.com /  
www.aikor.eus

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina eta Gaizka Eguzkitza

**Erredakzio taldea:** Maite Leherika, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

**Kolaboratzaileak:** Sara Gandara, Igor Elordui, Itsasne Zubiri, Maite Atxalandabaso, Xabier Díaz, Idoia Andrés, Oihana Astobieta, Aner Mentxaka eta Jose Angel Mentxaka

**Zuzentzaileak:** Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 7.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

## Jende librea herri zoriontsu batean



**IGOR ELORDUI**  
(Kazetaria)

**B**ai, badakit. Badakit Gure Esku Dago ekimenaren kanta zoragarriaren letrak justu aldrebes diola: Jende zoriontsua herri libre batean. Eta alai eta ozen kantatzen dut, gainera, ederra delako eta hala sentitzen dudalako. Baina agian politikan, bizitzan bezala, bestera da askatu beharreko ekua-zioa.

Hil honen 13an EBATZI-Larrabetzuko Gure Esku Dago taldeak antolatuta, Garbiñe Biurrun, Koldo Saratxaga eta Mario Zubiaga –azken hau moderatzaile lane-tan– izan genituen jendez beteriko Larrabetzuko eskolako jantokian erabakitzeko eskubideari, zehatzago, erabakitzeko eskubidea gauzateari buruz berbetan. Nork bere esparrutik eta esperientziatik ekarpen ezin interesgarriagoak, ezin argigarriagoak egin zizkiguten hara joandakooi. Han bota zirenak en-

tzunda otu zait “aldrebeskeria”: jende librea herri zoriontsu batean.

Izan ere, erabakitzeko eskubideari buruz ari garelarik, libre erabakitzeko libre izatea da gakoa. Libre, erabakitzeko non, norekin eta nola bizi gura dugun. Libre, erabakitzeko zein izango den gure izena, gure hezkuntza, gure hizkuntza, gure lan-harremanak, gure nekazaritza, gure industria, gure elikadura, gure bandera, gure ereserkia, gure hiriburua, gure polizia... Pentsatzeko, eztabaidatzeko eta erabakitzeko libre. Libre, irabazteko edota galtzeko, baina, batez ere, libre partida jokatu ahal izateko. Erabakitzeko eskubidea aldarrikatzea herritar librea izateko eskubidea aldarrikatzea da beste ezeren gainetik. Eta, horrexegatik, dena emana, dena erabakita etortzen zaigun garaio-tan, berau gauzatzea askatasun puska bat berreskuratzea eta gure bizimodu-

ren kontrola, apur bat sikiera, geureganatzea da. Nola ez du, ba, horrek merezi izango? Nola ez du, ba, balio izango? Hain da zentzuzkoa, hain da oinarritzkoa, hain da demokratikoa.

Larrabetzun, martxoaren 19an erabakitzeko libre izaten hasiko gara EBATZI dugu. Inork ez dakielako guk baino hobeto zer den komeni zaiguna eta hortik etorriko delako, etortzekotan, zoriontasuna; herritar bezala lehenengo, herri bezala gero.

## Herria, txakurrak, jabeak, bizilagunak eta elkarbizitza

**A**zkenaldian, nabarmen egin du gora txakurrak ditugunon kopuruak. Ohikoa bilakatu da herritik gure maskotekin ibiltzea. Txakurrak ditugunak eta ez ditugunak, nahastuta. Jakina, denek ez dute berdin atsegin lau hanketako lagun horiek. Eta ulergarria da, baina nola edo hala moldatu egiten gara.

Txakurra daukazunetik, betebeharrak ere zure gain hartzen dituzu. Asko dira eginkizun horiek, baina bat azpimarratuko dut. Izan ere, herritar guztion arteko elkarbizitza atsegina izan dadin, txakurkaka jaso BEHAR duzu. Jabe batzuek, ordea, ez dute hori egiten eta horrek odola



**SARA GANDARA**  
(Kazetaria)

irakiten dit, gutxi batzuen erruz, denok ordaintzen dugulako. Eta hori ez dut ulertzen, ez horixe! Ezin dut ulertu nola pertsona batek hainbesteko arduragabeke-riarekin jokatu dezakeen.

Lotsa ematen dit herritik ibiltzea eta berdegune batzuetan kakak ikustea. Inoiz, nire txakurrak egindakoa eta aurretik hor daudenak jaso izan ditut. Baina hori ez da irtenbidea. Zein da, bederen? Isunak jartzea? Agian bai, poltsikoa ukitzen digutenean min egiten digutelako, ezta? Tristeia, baina horrela da. Irtenbide horrekin ados egongo nintzateke, arduragabekeria zigortu behar delako.



## Sondika eta Zamudioko lorezainek grebari utzi diote



Lau hilabete eta bederatziz egun ostean, akordioa lortu dute Sondika eta Zamudioko lorezainek Enviser enpresarekin. Adostutakoaren arabera, enpresak % 20a igoko die soldata eta 2018ko urtarrilaren 1eko hitzarmenera heldu ahal izango da. Greba 2016ko irailaren 5ean hasi zuten eta Txorierriko herrietatik zehar mobilizazioak egiten egon dira denbora tarte honetan, ia egunero.

Grebalarien arabera, euren soldatak izan beharko liratekenak baino baxuagoak ziren (1.000 euro ingurukoak). Getxo bezalako udalerrietako lorezainek kobratzen dutenaren erdia besterik ez zutela jaso-

tzen aldarrikatzen zuten, Txorierriko zerbitzu honetako langile gehienek 12 urte baino gehiago egon arren.

Hitzarmen berriaren bitartez, langileek 1.310 euro jasoko dituzte. Gainera, lehen egunetik baje koberturaren % 100a jasoko dute, lehen % 35koa baitzen. Horri guztiari arrisku-plusa gehitu behar zaio: hilero jasoko dituzten nominetan 245 euro gehituko zaizkie eta lan jarduera 37,5 ordutik 36ra jaitsiko dute: "Pozpozik gabiltza enpresarekin lortutako akordioarekin, eskatzen genituen erreklamazio gehienak lortu ditugulako", adierazi dute.

## 55 litro metro karratuko, Derion

Urtarrilaren hasieran, 0º azpiko tenperaturako astea igaro ostean, hotzak euriari bidea eman zion, eta ezhoiko euria izan genuen Txorierrin. Euskalmet agentziaren arabera, urtarrilaren 10ean Bilbo, Igorre, Derio eta Arboleda izan dira Bizkaian euri gehien jasan dituzten udalherriak.

Urtarrilaren 11ko gauetik urtarrilaren 12ko arratsaldera arte 60 ur litro erregistratu ziren orduko, metro karratuan. Igorren, ordu horretarako 50 litro erregistratu ziren, eta Derion 55. Loiuako aireportuan, Deriotik gertu egon arren 31 litro jaso ziren.

Euskalmeten arabera, 15 litro metro karratutik gorako zaparradak "gogorak" izan ohi dira. Hori omen da euren erreferentzia nagusia. Oraingo honetan, euskal agentziak adierazi du zaparrada gogorra baino "oparoa" izan dela, euria erruz egin duela.



**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostirala:  
9.00-19.00  
Laburunbata:  
8.00-13.30

Urbe plaza, 1 behea  
Zamudio  
94 4520419

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

**BIDE-GORRI**

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WiFi gunea

**GAMINIZ**  
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio · Bizkaia  
GPS: 2º51'41" W 43º17'37" N

www.gaminiz.com

**Carrefour**  
express

ORDUTEGIA  
Astelehenetik ostiralera arte  
9:00-14:30 / 17:00-20:30  
Larunbatean  
9:00-14:30

Pago kalea, 5  
48170 ZAMUDIO

**ERREKA** **ONDO**  
**JAT** **ETXEA**

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,  
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 28 29



## Paddle pista bi inauguratu dira Loiun

Urtarrilaren 20an, paddle pista bi inauguratuko zituen Loiuko Udalak. Egunean bertan inaugurazio partida egin zen San Pedro jaietako 2016ko finalistekin: Tomás Odriozola eta Alfredo Taberero Angel Aretxabaleta eta Ricardo Aranaren aurka aritu ziren. Inaugurazioari amaiera emateko lunch-a egin zen.

## Aisi-gune berria, Loiuko Zabaloetxen

Loiuko Zabaloetxe auzoak umeentzako aisi-gune berria estreinatu zuen pasa den urte bukaeran. Udaletxe parean dagoen zonaldeak jolas torrea dauka eta haurrentzako bestelako elementuak gehituko zaizkio. "Udal taldeak zenbait zonaldeetako berrikuntzaren alde apostu egiten du. Horien artean, umei zuzendutako "azaldu du Josu Andoni Begoña alkateak.

"Kolunpio eta aisi-guneen esparruan bi ekintza egin genituen Larrondon, eta orain Zabaloetxe auzoan gabiltza burubelari", adierazi du. Lan hauen helburua txikienei kolunpio berriak, modernoak eta erakargarriak eskaintzea dela azaldu du Begoña.

## I. Pintxo lehiaketa, Sondikan

Sondikako kultura sailak herriko lehen pintxo lehiaketa antolatu du sektorea dinamizatzeko helburuarekin. Guztira hiru lehiaketa egingo dira otsailetik apirilera bitartera: otsailaren 10ean, pintxoaren osagarri nagusia okela izango da; martxoaren 10ean, arraina; apirilaren 7an, estilo librekoa. Bertan, herriko ostalaritzako edozein establezimenduk pintxo bakkarekin parte hartu ahal izango du eta pintxo partehartzaile guztiak lehiaketaren logoarekin atzeman ahal izango dira.

Aurkeztuko diren pintxoak euro bat balioko dute eta lehiatuko duten eguneko arratsaldean eskuragai egon beharko dira 19:00etatik 22:00ak arte. Bezeroek pintxorik onena zein den bozkatzeko aukera izango dute. Modalitate bakoitzeko irabazleak trofeoa jasoko du. Ondoren, 100 euroko txartela zozketatuko da bezeroen artean.

**Informazio gehiago:**  
[www.sondika.net](http://www.sondika.net)



RPS-184/10

**OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea, 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

**Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hortz-estetika  
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. esk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370

**Garmendia ardoak**

Pinwa pol., P-3B  
ZAMUDIO  
Tel./Faxa: 94 452 00 49

**Ne-apaindegia**

M<sup>a</sup> Antonia Llodio

Txoriemiko etorbidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**luz zamudio**  
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60  
48170 Zamudio - Bizkaia

**IB** Construcciones-Reformas  
**IÑIGO BARCENA**  
Igeltserotza orokorra

Especializateak:  
Xafia-lanak  
Zoruak

944522910 - 665703312 - 652772016

## Alpha Blondy eta Georgie Fame BBK Music Legends-ean izango dira

a: [www.vsc.com.fr](http://www.vsc.com.fr)

Urte bukaeran Van Morrisonen kontzertua iragarri bazen ere, urtarrilean Alpha Blondy abeslari afrikarraren eta Georgie Fame teklista britainiarren kontzertuak iragarri ditu Sondikan egingo den BBK Music Legends Festivalaren bigarren edizioak. Boli Kostako abeslariak The Solar System taldearekin arituko da (Barbados, Frantzia, Boli Kosta eta Jamaikako musikariez osaturiko banda). Reggae garaikidearen kondaira da, eta azken hamarkadetako 'roots' soinuen erreferentea. Georgie Fame 60. hamarkadako pop eta rythm & blues soinuen aitzindaria da eta ibilbidean zehar Muddy Waters, Gene Vincent eta Eddie Cochranekin aritu izan da eszenatokietan. Gainera, 1992 eta 2004 bitartean Van Morrisonen bandaren zuzendari musikal bezala aritu zen.

Konfirmatu diren hiru talde hauek ekainaren 2 eta 3an izango dira BBK-ko Ola zentroan egingo den BBK Music Legends Festivaleko bigarren edizioan, Sondikan. Pasa den urtean Jethro Tull, Graham Nash, Bob Geldof, Los Lobos, Elliot Murphy & Band, David Lindley eta Nina Hagen izan ziren, besteak beste.

### Informazio gehiago:

[www.musiclegendsfestival.com](http://www.musiclegendsfestival.com)



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefonoa: 94 403 69 00  
Faxa: 94 403 69 01  
e-mail: [hotel@aretxarte.com](mailto:hotel@aretxarte.com)  
e-mail: [reservas@aretxarte.com](mailto:reservas@aretxarte.com)  
[www.aretxarte.com](http://www.aretxarte.com)



### TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA  
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.  
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

### LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA  
Oiz. Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

Inaki 94 455 65 08  
Jabi 94 452 14 31

## Magalarte Txakolina

ARETXABALETA HERRIA ETA BIZKAIA

75 cl.  
Bizkaiko Txakolina 10,75 % vol.  
Denominación de Origen  
Luz-1-45



## Larrabetzu, UEMAk kide berria



Larrabetzuko Udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) partaide egin zen urtarrilaren 14an, Ea, Dima, Ziortza-Bolibar, Legorreta, Mendaro, Ataun, Errezil eta Areatzarekin batera. Dagoeneko 240.000 biztanleko lurguneko euskalduna osatzen dute UEMAk kideen artean. Lehendakaria den Josu labakak

adierazi du urte berri honetarako aurreikuspen onak daudela: "Hainbat herririk erakutsi dute UEMAk kide izateko gogoia, eta horiekin ere ari gara bilerak egiten, ahalik eta adostasun zabalarekin har dezaten erabakia, iraunkorra izan dadin", adierazi du. 1988an, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 32 udalek Eus-

kal Herrian Euskaraz elkartearen mozioa onartu zuten, udalak euskalduntzeko eta euskara hutsean funtzionatzen hasteko. Helburu hau erdiesteko arazoak zeudela ikusita, udal horietako batzuk biltzen eta koordinatzen hasi ziren, udalak ere euskaraz lanean hasi ahal izateko. Horrela, eta mankomunitate izaerarekin, sortu zen UEMA. Lehen batzarrean 17 udal bazetuden ere, 25. urteurren agintaldi honen hasieran 72 izatera igaro ziren.

Larrabetzuko alkate Iñigo Gazteluk, UEMARA sartzea "ohorea eta beharra" dela adierazi du. "UEMAk kide izanda inoiz baino euskararen herritarrago" direlako larrabetzuarrak. "Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea da gure helburua. Guztion gogoia eta ahalegina eskatzen duen helburua; helburu ilusionagarria; denoiei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboei, herri agintariei, alderdi politikoei, langileen sindikatuari, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa".

### LARRABETZUTIK GALDAKAOKO OSPITALERA, HIRU ALDIZ EGUNERO.

Urte hasieran, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio, Mugikortasun eta Kohesio departamentuak aldaketak ezarri zituen Bizkaibusen: urtarrilaren 1etik aurrera Bilbo-Galdakao-Larrabetzuko autobus lineak hiru bidaia egiten ari da egunero (joan-etorriak) Galdakaoko ospitalera. Orduetgia honako hau da: Larrabetzutik irtenda, astelehene-tik ostiralera 07:15etan, 13:15etan eta 16:15etan. Galdakaotik, 11:40etan, 14:40etan eta 20:40etan.



**GOXO-GOXO LOHIZUN**

Arretaldaz zehelk  
Ogile egunero  
Pestalek enkargatuz.

Garaioitza, 77b  
48106 Lezama  
94 455 42 72  
gogogoxolohizun@hotmail.com

**LEJARRENE JATETXEA**  
Garaioitza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 85 46

**KIMA**

Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Garaioitza 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77  
48196 LEZAMA (BIZKAIKA)



## Txartel multimodalak, 45.000 bidaiarientzat

Bizkaiko Garraiobideen Partzuergoaren Kontseilu Orokorrek argi berdea eman die apirilean aurkeztuko diren Metro, Tranbia eta Euskotren garraiobideetako txartel tenporal berriei. Gaur egun 45.000 pertsonak erabiltzen dituzte titulu horiek, erabiltzaileen % 22k, hain zuzen ere. Apirilean Metro Bilbaoko 3. linearen jaiotza dela eta, txartel berriak estreinatu dituzte metro, tranbia eta Euskotrenetako txartel tenporalen erabiltzaileek. Linea berriaren helburua tren-aldaketak deuseztatzea da. Lehenengo geltoki intermodala Bilboko Zazpi Kaleetakoa izango da. Bertan 1., 2. eta 3. lineetako garraioak izango dira, eta parametro bereetsuekin erabili ahal izango dira: bai txartelak, bai prezioak.

Garraiobideen erabiltzaileen % 22k txartel tenporalak darabiltzate, 45.000 bidaiari mugiarazten hilabetero (gainontzeko % 78k diru-zorro-txartelak erabiltzen dituzte). Txartel tenporal berri hauen ondorioz, espero da zifra % 20a handi-



tzea, urtebeteko epean. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak txartel Gazte Multimodalak gehitu ditu. Horiek, metroa, Euskotrenen eta tranbian erabiltzeaz gain, Bizkaibusen erabiltzeko aukera ematen dute.

Prezio berriek tarifa-integrazioa ekarriko dute, azken batean Metro Bilbao, Euskotren eta tranbiak Bizkaiko Lurralde

Historikoaren % 58,1a mugiarazten dute, eta Bizkaibusen, % 74a. Txartelak 3. linea martxan jarri baino hilabete bat lehenago salgai egongo dira. Bizkaiko Garraiobideen Partzuergoaren Kontseilu Orokorrek txartel hauen inguruko informazioa areagotuko du, erabiltzaileak sistema berrira erraztasunez moldatu ahal izateko.

### LUZATU ZURE MOTORRAREN BIZIRAUPENA

70€ -ETIK

Olio-aldaketa eta iragazki-aldaketa % 100 eko MOTUL sintetikoa (5W30 C2-C3) erabiliz.

Olio-aldaketa bakoltzarekin autoaren 24 punturen doako ikuskapena

### Etorri gu ezagutzera!

OPARIA  
tzaknak agortu arte

Ikusi gure sustapenak eta deskontuak. Etorri informatzera, eta opari erabilgarri bat egingo dizugu

### Banaketa-uhala aldatzea

450€ -ETIK

Disko eta pastilletan %30

### Zure segurtasunaz arduratzen gara

DOHAIN

Doako freno-likido aldatzea freno eta pastilla aldatetekin

### PNEUMATIKOEN ALDAKETA, MARKA GUZTIAK

688 847 633  
946 572 315  
944 654 991  
iker@mujiailerrak.com

MUJI TAILERRAK  
Inbisa industrialdea  
Astintze kalea 6, 16-17 C2 Pabiloia  
48160 Derio / Bizkaia

# Metroko 3. linea probetan hasiko da

Etxebarri Matikorekin lotuko dituen linea otsailaren amaieran eta martxoaren hasieran probetan hasiko da, bidaiariarik gabe, inaugurazio egunerako prest egoteko helburuarekin. Garapen ekonomiko eta azpiegituren aholkularia den Arantza Tapiak azaldu du linea berriaren lanak oso aurreratuak daudela.

Arantza Tapiak, 2016ko abenduaren 28an obretan dagoen Alde Zaharreko geltokian izandako bisitan azaldu zuen Euskal Trenbide Sarearen lanak obra zibila eta egiturak uztartzen ari direla. Guztira 279 milioi euro inbertitu ditu Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Diputazioak. Tapiak Alde Zaharreko geltoki intermodalaren funtzioa azpimarratu zuen: "Proiektuaren bihotza da. Bertan hiru lineak batuko dira eta toki batetik bestera doazen bidaiarien topagunea izango da. Gainera, espero da urtean zehar 10 milioi bidaiari igarotzea bertatik".

3. lineak sei kilometroko luzeera izango du, zazpi geltokiz osatuta: Matiko, Uribarri, Alde Zaharra, Zurbaranbarri, Txurdinaga, Otxarkoaga eta San San Antonioko Etxebarri. Gainera, Bilboko iparraldeko auzoak Txorierriekin konektatuko dira, Artxandako tunel berriaren bidez.

Tapiak adierazi du sei kilometroko linea honek 7,5 minutuko frekuentzia izango duela eta Matiko Txorierriekin lotuko duela, 70.000 pertsoneri zerbitzua emanez: "Zerbitzu ona eta kalitatezkoa izango da".

Bestalde, Bizkaiko diputatu nagusia, Unai Rementeria, argitasunez mintzatu da: "Ia bukatuta dago dena: nasak, trenbideak, igogailuak... Gutxi falta da geltoki hau jendez eta aktibitatez betetzeko. Linea berriak Txorierri, Durangaldea, Amorebieta, Busturialdea eta Urdaibairekin dauden konexioak hobetuko ditu, eta Alde Zaharreko geltokia Bizkaiko inter-

Txorierriko Euskotren linea, Zamudion.



modal nagusia izango da". Halaber, Bizkaiko diputatu nagusiak adierazi du metroaren ibilbidea ez dela 3. linean bukatzen: "Hurrengo urteetan errepideko eta trenbideko garraioa gehiago koordinatzea dugu helburu. Horrela, garraio zerbitzu publiko modernoagoa eta eraginkorragoa izango da eta, honi esker, Bizkaia asko hobetuko da".

## Intermodala eta tren berriak

22 metroko luzeeradun eta 16 metro zabaleradun halletik igaro ostean, eskailera mekanikoen eta igogailuen bidez 1. eta 2. lineetara heldu ahal izango dira bidaiariak geltoki berezi honetan. Gaur egun atrioari forma ematen ari diren pilareak eta nasa batera doazen eskailerak ezartzen ari dira.

Tren berriak EMU 950 modelokoak izango dira. Guztira hiru kotxek osatuko dute konboia: muturreko biak motor-kotxeak izango dira (gidatzeko kabinekoak). Hirugarrena, erdian kokatutakoa, remolke tankerakoa izango da. Guztira 296 plaza izango dituzte tren berri hauek. Horietako 94k eserlekua izango dute.

Eserlekuak bandalikoan aurkakoak izango dira, ergonomikoak eta buru-euskarridunak. Horrez gain, horien diseinua hobetu egin da segurtasun arrazoiengatik: aurrez aurreko istripu kasuan kalte posiblea gutxitzearen. Gidariaren segurtasunerako, aurreko kristala indartu egin da, bai istripuetan kalte gutxiago jasotzeko, bai ikusmen handiagoa eskaintzeko. Ateek ere segurtasun sistema izango dute, harrapaketak ekiditeko.

**auzoKide**  
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B 634 410 470  
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

**GALAISIA**  
Estetika eta ile-apaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Etengabeko ordutegia

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

yedra  
floristas

Mikel Zarate, 2 · 48150 Sondika · Bizkaia  
Telefonoa: 94 453 14 57 · yedrainterflora@hotmail.com





## Juan Luis Mentxaka Hernández | Dena bukatu zen

1950ean jaio zenean, bere etxea eraikitzen ari ziren. Bertan eman du bizitza Juan Luisek, duela lau urtera arte. Etxeko teilatua jausi eta bertan bizi ezinik, etxe parean duen karabanan bizi da. Zamudioko galdategian eta Palets del Txorierrin lan egin zuen: "Baina dena bukatu zen". Bakardadean bizi da, eta egun batean, alkohola gehiegi edateak bihotzkoarekin mehatxatu zuen Mentxakaren osasuna. Gaur, ortua eta bere abereak zaintzeaz arduratzen da gizona, bertan behera utzitako etxearen iraganeko mamuak auzokide bakarrak dituelarik.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti ([www.jongoikouria.com](http://www.jongoikouria.com))

Teilatu apurtua  
etxe zabalean,  
bisaia seriodun  
gizona kalean,  
bizitza gogorren  
markak azalean...  
hori dana sartu lei  
zuri-baltz soilean.

*Itallen Bertso Eskola*

**ASESORÍA**  
Luis Fernando Aguirre, s.l.

---

Mateo Bidaurrazaga, 1  
Tfn: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**Izpilen**  
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)  
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - [izpilen@gmail.com](mailto:izpilen@gmail.com)

**ASTIKENEMOTOR**  
www.ASTIKENEMOTOR.com



DERIO - 946 451 781

**ELORRIETA**  
**INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behea Derio 48160  
94 454 03 86  
**639 57 98 48 - 639 58 25 47**

**BIZKARGI**  
TABERNA ETA JANARIA

Urkiola, 6 DERIO 944541655

**aldeko**  
hartz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

–Especialitate guztiak  
zentro bakar batean  
–Aurrekontua doan

–Especialitatea:  
umeak

Urte 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)

**ARINKA**  
KASTEGIA

Goiko kalea, 6 DERIO

LH – DBH – BATX.  
INGELES – MARRAZKETA  
ERROBOTIKA  
TAILERRAK / ESKOLA LAGUNTZA

944 544 753 695 78 77 74

www.arinkakopidenda.com arinkaikastegia.blogspot.com

**Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.  
48150 Sondika  
Bizkaia

94 453 25 15  
94 453 39 31

**IRATXO**  
gazotegia

tarta personalizatuak  
trufak  
helak  
pastelak  
pastak

Mikel Zarate, 2 - 3. tonja • Sondika, 48130 • 94 943 89 79

**Abelino Arraindegia**

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO  
T: 94 602 75 25-6

**ADARVE KAFETEGIA**

Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

# “Geureak dira eskubideak beraz, etorkizuna ere g

GARBIÑE BIURRUN | epailea

Ebatzi-Larrabetzuko Gure Esku Dago ekimena martxan dago. Urtarrilaren 13an “Herri galdeketa: Erabakitze eskubidearen gauzatzea” hitzaldia antolatu zuen eta bertan, besteak beste, Garbiñe Biurrun epailea aritu zen. Aukera ezin hobea, Gure Esku Dago ekimenari eta justiziari buruz hitz egiteko.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Idoia Andrés

## Zelan Larrabetzuko hitzaldian?

Ez nuke esango hitzaldi bat izan zenik: norberak bere sentimenduak plazaratu zituen eta denon artean mosaiko interesgarria osatu genuen. Oso gustura egon nintzen, mahaikideak –Koldo Saratxaga eta Mario Zubiaga– lagunak ditudalako. Bestalde, espero nuen baino jende gehiago bildu zen ekitaldian. Parte-hartzailea eta gogotsua iruditu zitzaidan, iritzi garbia duena.

## Zein momentutan dago Gure Esku Dago ekimena?

Mobilizaziorik eza dago. Gizartearen zati handi bat ez dago kontzientziatuta edo ez dator Gure Esku Dago ekimenaren planteamendurekin bat. Gure Esku Dago eskaintzen eta eskatzen duena oso zorrotza da: hausnarketa bat, gure askatasunaz baliatuz, gauzak aldatzeko. Eta askatasuna erabiltzea ez da batere erraza; askoz ere erosoagoa da beste batzuek erabakitzen dutena onartzea, gehiegi kezkatu gabe.

## Herritarrek benetako aldaketa eragiteko gaitasuna dugu? Edo hori politikariek sustatu beharko lukete?

Gure esku dago erabakitzeko dagoen guztia. Eskubideak gureak dira, ez beste inorenak. Eta erabakiak ere bai, nahiz eta, behin behinekoak, beste batzuen eskutik utzi ditugun. Baina berreskuratu behar dugu erabakitzeko eskubidea. Geureak dira eskubideak eta erabakiak; beraz, baita etorkizuna ere. Politikariek gure zerbitzura daude eta gure ordeztatu beharko lukete, baina geuk esandako bidetik, ez euren kabuz.

*“Askatasuna erabiltzea ez da batere erraza; askoz ere erosoagoa da beste batzuek erabakitzen dutena onartzea”*

*“Hautatzen ez ditugun botere batzuek geuk hautatutakoak baino gehiago agintzen dute batzuetan”*

## Baikorra zara Gure Esku Dago ekimenaren etorkizunari begira?

Nire baikortasuna jendearengan dago eta Gure Esku Dago ekimenaren azken helburua jendea da, hain zuzen ere, pertsona oro ahalduntzea, gai eta arlo guztietan.

## Prozesu honetan, Katalunia izpila ala bidelaguna?

Kataluniako prozesua bi era horietan hartu beharko genuke: gizartearen mobilizazioaren eta alderdi politikoen rola aldetik izpila izango litzateke, oso garbi dagoelako nork agindu duen martxa horretan. Bestalde, beren prozesuak eta gureak aurrera egin ahal izateko, argi dago bidelagunak izan behar dugula.

**Hitz egin dezagun justiziari buruz. Zelan ikusten du gizarteak gaur egun**



# eta erabakiak eurea da”

## **dugun justizia? Jendeak justizia zilegia dela uste du?**

Jendeak justiziarekiko iritzi desberdinak ditu. Alde batetik, justiziaren zilegitasuna zalantzan jartzen da, batez ere justizia ez zaielako berdin aplikatzen pertsona guztiei eta independentea ez delako. Hori, Euskal Herrian, bereziki azpimarratu behar da. Bestalde, justizia administrazioak, zerbitzu publikoa izanik, eraginkorra izan behar du. Eta arlo horretan, beste zerbitzu publikoek dituzten arazoak ere baditu: bitartekoen eskasia, murrizketak... Eta horiek eragina zuzena dute jendearen gain.

## **Argi dago justizia ez dela erabat independentea, besteak beste epaileen nagusiak politikariek aukeratzen dituztelako. Sistema ona da? Aldatu beharko litzateke? Aldatu ahal da?**

Oso hausnarketa sakona behar da galdera horiei erantzuteko. Ez da erraza. Justiziak guztiz independentea izan behar du, giza eskubideak delako. Justiziaren independentzia beste aginteekiko aldarrikatzen da, hau da, exekutiborako eta legegilerako, baina, gaur egun, ideia hori zabaldu beharko litzateke, denok dakigunez, hautatzen ez ditugun beste botere batzuek ere agintzen dutelako eta, arlo batzuetan, geuk hautatuak baino gehiago.

## **Zergatik ez da batere ohikoa epaile bat komunikabideetan ateratzea? Gizartetik egon beharko liratekeen baino urrunago daude?**

Gizartetik gertu egoteko ez da komunikabideetan atera behar. Baina, orokorrean, jarrera bat da. Justizia oraindik mundu iluna da gizartearentzat; erabiltzen den hizkuntza zaila... Hala ere, azken urteotan panorama triste hori aldatzen ari da, epaileok gizartetik inoiz baino gertuago egon garelako eta gizartearen kezka kontuan hartu eta era desberdinean ebatzi ditugulako. Esate baterako, etxegabetze edo lan erreformari buruzko jarrera azpimarratuko nuke. Bestalde, nik uste dut hartzen ditugun hainbat erabaki publikoki argitu beharko genituzkeela, gizarteak benetan ondo uler ditzan.



## **Epaile aurrerakoia**

Garbiñe Biurrun Mancisidor (Tolosa, 1960) epailea da. 2009an Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko lan arloko salaren presidente izendatu zuten. Gainera, tolosarra Jueces para la Democracia elkartearen kidea da. Bere lanari dagokionez, Garbiñe Espainiako Konstituzioa euskarara itzultzeko lan-taldean ibili da, baita Lan Arloko Prozeduraren Legea euskaratzen ere. Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea ere bada.

Garbiñek inplikazio handia erakutsi du beti gizarte mailan. Garai batean, Euskadiko Ezkerra alderdiaren eta Comisiones Obreras sindikatuaren kidea izan zen, eta gaur egun Gesto por la Paz, Lokarri edo Amnistía Interna-

cional elkartearen partaidea da. Gure Esku Dago ekimenaren kidea ere bada. Azken bolada honetan, ezagunago egin da kolaborazioak egin dituelako komunikabideetan. Bere jarrera nahiko aurrerakoia izaten da.

2014an Euskal Herriko Bake Prozesua Sustatzeko Batzordean aritu zen, ETA erakundeak armak alde batera arinago uzteko. Hala ere, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bertan parte hartzea debekatu zion. “Euskal Herriko panorama politikoa askoz ere argitsuagoa da gaur egun orain, urte batzuk baino. Hala ere, iruditzen zait oraindik gizarteak egoera berri honetara egokitu behar duela. Orain arazo gehiagorik arduratzeko aukera dauka eta hori ez da inolaz ere eroso”.

# Fin eta arin

UGAITZ BASARAS ETA LARRAITZ ETXEBARRIA | rally pilotuak

Zamudioko IV. Rallyan lortutako bosgarren postuak Euskal Herriko Rallyen Txapeldun izendatu zituen Ugaitz Basaras lezamarra eta Larraitz Etxebarria zamudioztarra. Renault Clio Sporteko bikotea poz-pezik dabil tituluarekin eta lasterketetan parte hartzea biziki maite du. Pilotua eta kopilotua, lankideak izateaz gain, bikotea ere badira, eta automobilismoaren munduak inoiz baino gehiago elkartu ditu.

*t/a: Jon Goikouria Larrabeiti*

Esaten da edozein arlotan ordu asko ematen direnean, frikzioa eta tentsioa sortzen dela pertsonen artean. Honako kasua, ostera, bestelakoa da: Ugaitz Basaras eta Larraitz Etxebarria rally pilotu eta kopilotua dira, eta autoan ordu asko ematen dituzte, bai txapelketetan, bai eguneroko bizitzan. Baina horrek, euren bizitza automobilismoaren inguruan eraike izanak, banatu beharrean, gehiago elkartu ditu, eta poz-pezik bizi dira.

Ugaitz lezamarra da, 27 urte ditu eta ibilgailuen elektromekanika ikasketak amaitu zituenetik, Bilboko Portuan mekanikari egiten du lan. Larraitz Zamudion bizi da eta haur hezkuntzako teknikaria da. Eskolako monitore egiten du lan goizetan, eta saltzaile bezala, arratsaldeetan. Lehendik elkar ezagutzen bazuten ere, 2013an lehen rallya egin zuten batera, Gernikan. Ugaitz txikia zenetik hasi zen motorraren munduan: bizikletatik motorrera arin egin zuen salto. Gainera, nekazal munduan hazitako gaztea da, eta etxean traktorea erabili du betidanik. "Aita rallyetan aritutakoa izan da betidanik", azaldu du lezamarrak.

Zamudioko IV. Rallyan sustoa izan zuten azken txanpan eta tronpoa egin zuten. Hala ere, bertan lortutako bosgarren postuak Euskal Herriko Rallyen txapeldunak bilakatu zituen: "Txorierrin badira pilotuak, eta horien alde apustu egin behar da", adierazi du Basarasek. "Euskal Herrian lan asko egin behar da, batez ere Federazioaren aldetik: ez dugu ia laguntzarik jasotzen; gustuko dugulako lehia-

tzen dugu", azaldu du pilotuak. Bikoteak Iparralde Racing automobil taldearen kideak dira: "Urtebete daramagu bertan, autoaren alineazioa egiteaz gain lagunak dauzkagulako. Taldeko guztiek parte hartzen dute lasterketetan, presidentea bera barne".

Lursail pribatuak izan edo alokatu ezean, zaila da entrenamendu saioak egitea automobilismoan: "Zirkuitu pribatuan ez bada, saiorik egin gabe goaz lasterketetara", azaldu du Ugaitzek. "Lasterketa egin baino astebete lehenago, zonaldea aztertzeraz joan ohi gara", aipatu du Larraitzek. "Normalean bizpahiru pasada egiten ditugu autoarekin. Lehenengoan Ugaitzek lur-gunearen nondik norakoak diktatzen dizkit, eta hurrengo bi pasadetan nik neuk kantatzen dizkio". Larraitzek



Ugaitzen kopilotu ohia zen Ander Birkandiren gomendioak barneratu zituen 2013an, eta bestelako inolako klaserik jaso gabe (kopilotua izateko kurtsoak egon badaude-eta) Ugaitzekin lanean hasi zen: "Hiru urte hauetan ez dugu inolako penalizaziorik jaso txapelketetan", goraiatu du pozik zamudioztarrak.

Rallyetan aritzeko, izena emateaz gain, azterketa psikoteknikoa gainditu behar da: "Gidatzeko baimena ateratzean







*“Urtero 4.000 euroko kostua izan dezake autoaren mantentze-lanak. Beraz, babesleen laguntza behar dugu”*

*“Zihara Esteban bezalako pilotuak daude, nahiz eta gehienak mutil lagunen kopilotu bezala aritu”*

kanaka-pixkanaka lortu behar dira”. Lasterketatik kanpo badute beste Renault Clio Sport bat, eta euren esanetan, ez diote lasterketakoari besteko kasurik egiten mantentze-lanetan.

Larraitzek bezalako neskek gero eta presentzia nabarmenagoa daukate automobilismoan: “2007an, rallyak ikustera nihoan garaian, ez nuen inolako emakume parte-hartzailerik ikusi. Zorionez, gaur egun Zihara Esteban bezalako pilotuak daude, nahiz eta rallyetan aritzen diren emakume gehienak mutil lagunen kopilotu bezala aritu. Kirol matxista iruditzen arren, nire kasuan behintzat, harrera ezin hobea izan dut txapelketa guztietan. Edozein kopilotu bezala tratatu naute”, aitortu du.

Etorkizunari begira, pilotu eta kopilotuaren ametsak hainbat dira: “Estatu mailako lasterketen artean Llaneseko rallyan aritzea asko gustatuko litzaiguke, eta nazioarteko mailan, Kataluniako rally mixtoan, baina asko eskatzea da hori”, adierazi du Ugaitzek. “Hala ere, ez genuen pentsatzen Euskal Herriko txapelkunak izango ginenik, eta horra hori!”, amaitu du Larraitzek.

egin beharrekoaren antzekoa izan ohi da”. Horrez gain, mentalitate aldetik pertsona trebea eta erreflexuduna izatea komeni dela dio lezamarrak. Lasterketetan parte hartzeko buruarekin jokatu behar dela azaldu du Ugaitzek: “Ardura nagusia txapelketak osorik amaitzea da, pieza batean: autoa apurtu gabe, fin eta arin jokatzuz”.

#### Zaletasun garestia

Erabilera arrunteko autoa mantentzeak lan asko eta inbertsio handia dakar: gastu finkoak (asegurua, erregaia, zergak...) eta aldakorak (konponketak, mantentze lanak). Lasterketako autoek, bestelako mantentze-lanak daukate. Hasteko, segurtasunari arreta handia eskaini behar zaio: Ugaitzen kasua berezi xamarra da, mekanikoa izanda berak egiten dituelako mantentze-lanak: “Pneumatikoak eta ali-

neazioa izan ezik, nik neuk egiten ditut mantentze-lanak: lasaierarik ez egotea, nibelak ikuskatzea, motorreko euskarriak doitzea...”

Rally autoaren urteko kostu mekanikoak 1.000 euro ingurukoak izan daitezke, erraz-erraz. Horri guztiorri lasterketetan parte hartzeko izen emateak (250 euro txapelketako). Ugaitz eta Larraitzek lautan parte hartzen dute urtero), aseguruak (400 euro inguru), erregaia (80-100 euro txapelketako) eta pneumatikoak gehitu behar zaizkio (800-1.000 joko bakoitza). Normalean joko bi izaten dituzte; lursail siku eta bustietarako). “Urtero 4.000 euroko kostua izan dezake autoaren mantentze-lanak. Hori dela eta, babesleen eta iragarleen laguntza behar dugu. Pilotu hasiberri batek egin dezakeen gauzarik onena zuhurtasunez jokatzeko da, dirua edonola gastatzea baino: helburuak pix-

**EGUNEKO MENUA**  
lehenengo platera  
bigarren platera  
postrea  
ogia  
edaria **9€**

Bestorene 5, Behea 48160 DERIO  
**T: 94 454 55 55**

**HAUR-MODA**  
**TxIMELETA**

Gernikako Arbola, 8 DERIO  
94 454 14 35

Familia osorako  
kalitatezko arreta,  
zure esku

Zainketa Berrux  
Logopedia  
Podologia  
Krimasajee

**clínica dental ZAINDUZ**  
hortz klinika

Txarrenti etorbidea, 9 - Loria | Ansaia eskina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com



Txorierriko Mankomunitateak % 1 igo du aurrekontua, 7,659 milioira arte

## Arreta berezia, gizarte-zerbitzuei eta hondakinen kudeaketari

Prezio publikoak izoztu egin dira eta berdintasun plan berriak egingo dira udalerrietan; gazteria eta euskara planak ere egingo dira

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak % 1,08 igoko du 2017ko aurrekontua; hala, 7.659.634,55 eurokoa izango da. Horrez gain, prezio publikoei eutsi nahi die (% 0ko igoera) eta ohiko gastuak doitu, ematen diren zerbitzuetan murrizketarik eragin gabe. Horrenbestez, aurrekontu-partidetan bi arlo nabarmendu dira bereziki: enpleguaren sustapena –bere horretan mantenduko da Mankomunitateak Behargintza Txorierri SL (EGAZ) sozietate publikoari ematen dion 252.000 euroko ekarpena– eta herritarrengan hondakinen kudeaketan duten erantzunkidetasunari buruzko kontzientzia sortzea. Ildo ho-

rretan, 10.000 euroko partida bideratuko da sortutako hondakinak murrizteko sentsibilizazio-kanpainak egiteko. Aurtun, 3.759.332,29 euro erabiliko dira hondakinak batzeko eta tratatzeko, baita bide-garbiketarako ere, 2016an baino 41.646,18 euro gehiago.

*Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzera bideratutako partida % 5,77 igo da*

Esparru horretan, hondakin organikoak edukiontzi marroian eta autokonpostajearen bidez biltzeko sistemaren alde jarraitzen du Mankomunitateak, eta ezarritako sistematzat hartzen ditu jada. Orain, hura zabaldu eta indartzean jarriko du azpimarra. Horretarako, Mankomunitateak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatuko dio proiektu osoa finantzatzeko dirulaguntza, aurreko urteetan bezala.

Berdintasunaren aldeko lanak ere garrantzi berezia du 2017ko aurrekontuetan, Mankomunitateak eta berau osatzen duten udalerriek euren berdintasun planak egin behar baitituzte. Horregatik, % 53,33 igo da xede horretara bideratutako partida (23.000 euro arte).





## 2017rako helburuak:

- Enplegua sustatzearen alde erabakitasunez egitea, eta kredituaren % 24,08ko igoerari eustea, 2016rako esleitu zen moduan.
- Prezio publikoei bere horretan eustea (% 0ko igoera 2016. urteari dagokionez).
- Gizarte-zerbitzuei lotutako zerbitzuak gehitzea, baita gizarte-hezitzaileen kopurua eta psikologoaren lanaldia ere.
- Ohiko gastuak doitzea, eskaintzen diren zerbitzuetan murrizketarik eragin gabe.
- Argiteria publikoaren kudeaketa osoa gauzatzeko, eta lan osagarriak egiteko zenbatekoak esleitzea (OCAS...).
- Langile-gastuen igoerari aurre egitea; gastu horiek langileen ordainsarien % 1eko igoeraren aurreikuspenak motibatu ditu.
- Herritarrak kontzientziatzea hondakinen arazoan duten erantzunkidetasunari buruz, eta arian-arian errefusa murriztu eta gaikako bilketa areagotzea.
- 10.000 euroko kreditua duen partida bideratu da "Herritarrak sentsibilizatzeko zero zabor kanpainak" egiteko.
- Euskararen erabilera eta ikaskuntza sustatzea eta Euskararen Plan Estrategikoa egitea.
- Mankomunitateko udalerrietan berdintasun eta gazteria plan berriak sortzea.
- Prebentzioa azpimarratzea droga-mendekotasunaren, bullyingaren, cyberbullyingaren, hiesaren eta osasunaren arloetan.

Aurten, gazte plana ere egingo da. Halaber, 34.687,50 euroko partida kontsignatu da gazteriako programak burutzeko.

Aurrekontuetan, era berean, gizarte-zerbitzuei lotutako zerbitzuak, gizarte-hezitzaileen kopurua eta psikologoaren lanaldia gehitzea aurreikusten dira; izan ere, urte honetatik aurrera, psikologoak 18 urtetik gorakoei ere eskainiko diete arreta.

Euskara Zerbitzuko partida % 5,77 igo da (110.000 eurora arte), euskararen eza-gutza eta erabilera sustatzeko jarduerak antolatzeko.

Azkenik, aurrekontuek garrantzia ematen diote droga-mendekotasuna, bullyinga, cyberbullyinga, hiesa eta osasuna bezalako prebentzioari. Era berean, kreditu jakin bat kontsignatu da langile-gastuen % 1eko balizko igoerari aurre egiteko, 2017rako ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezartzen duen bitartean.

### EGAZ Txorierri

Aurrekontua 995.141,88 eurokoa da (2016an baino % 18,94 gehiago); horietatik, Mankomunitateak 252.000 euro jarri ditu, uste baitu enplegua dela Txorierriko herritarrentzat lehentasunik handiena. Hortaz, Mankomunitateak aurrekontuaren % 25 finantzatzen du; gainerakoa diru-laguntzek (guztizkoaren % 48) eta fakturazioak berak (% 27) osatzen dute. Aurreko ekitaldian onetsitako irizpide bera mantenduko da: Behargintzari egin beharreko ekarpenaren % 75 Udalek finantzatuko dute, udalerrri bakoitzaren biztanle kopuruaren irizpideari jarraikiz; gainerako % 25 udalerrri bakoitzean dagoen enpresa kopuruaren arabera finantzatuko da.

### Udal euskaltegia

Aurrekontua 638.808,20 eurokoa da; hots, aurreko ekitaldian baino % 2,14 gutxiago. Udal bakoitzak ekarpenak egiten ditu, matrikula egin duten ikasle kopuruaren arabera (ikasturte honetan Txorierriko 225 pertsonak eman dute izena ikastaroetan); aurten, 356.209,19 euro izango dira (guztizkoaren % 55,76). Aurrekontuaren % 36,41 HABEren diru-laguntzetatik dator (232.599,01 euro) eta gainerako 50.000 euroak (guztizkoaren % 7,83) matrikulen diru-sarreretatik eta klaseetatik.



# Bertsolari nasaiaren garaipena

ETXAHUN LEKUE | bertsolaria

*Txapela buruan eta ibili munduan* esaten bada be, Etxahun Lekuek 2016ko abenduaren 17an irabazitakoa ez dago inoren buruan, ezta etxeko horman eskegita be. Bizkaiko bertsolaritza txapeldunak ez dau motxilatik atara, bertso eskoletako ikasle guztiei erakutsi behar baitie Bizkaia Arenan irabazitako altxorra. Txapela sari polita eta garrantzitsua bada be, larrabetzuarrak ez deutso pisu gehiegirik emon gura ekitaldi puntual horretan irabazitakoari eta bere horretan jarraitu nahi dau.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

## Zelan dago Larrabetzu zure garaipena iragarri zanetik?

Herri txikia da eta danok ezagutzen dogu alkar. Herritar danek zoriondu nabe. Notiziak arin zabalten dira, eta herriaz gain urrun bizi diran euskaldun askok be zoriondu nabe.

## 2002an lehen finalean agertu zinan eta 2016an irabazi.

Jenteak espero eban. Egia da zaletuen aldetik "aurten zure urtea da" bezalako komentario ugari entzun dodazala, baina nik ez dot horrela harten: ez deutso derri-gortasunik jarri neure buruari Txapela irabazteko. Sari polita bada, eta txapelketara zoazenean irabazlea izateko nahia dozu. Halan da be, txapel barik be trankil erretiratuko nintzateke. Txapelketetan parte hartzen dot bertan disfrutatzen dodalako. Irabazi ezean be bardin egongo nintzan.

*"Txapel barik  
be trankil  
erretiratuko  
nintzateke"*

## Nola deskribatuko zeunke Etxahun Lekue?

Tipo lasaia naz, eta uste dot hori eszenatokian islatzen dodala. Plazan norberaren izaera aditzera emoten da: umoretsua dana, bertsoetan umoretsua izateko joera dauka askotan. Azken baten, izaera eta bertsokeria bide beretik doaz.

## Noiz piztu jatzun bertsolaritzarekiko grina?

Zortzi urte nebazala. Aurreko urtean Larrabetzuko Bertso Eskola sortu zan, nagusiena momentu hartan. Sortu eta urte-

betera ume talde bat sartu ginan bertan. Nagusien taldea desagertu eta 18-20 umeen talde potentea sortu genduan. Nerabezaroan neu bakarrik geratu nintzan. Beste guztiek alde egin eben. Momentu txarra bakarrik lotuteko. Eskerrak Jon Lopategiren Bizkaiko Bertsolari Gazteen taldean sartu nintzala.

## Bertsolariaz gain, bertsolaritza irakaslea be bazara.

16-17 urte daroadaz honetan, eskolarik eskola bertsolaritza irakasten, Bertsozale Elkartearen bitartez. Bizimodua bertsoen inguruan eraiki dot: lanbidea bertso irakaslea dot, zaletasunetako bat Bertso Eskola da eta hobby nagusia bertsolari bezala aritzea da. Egia da ez dagoala alderik eskoletan egiten dodan lana plazan egiten dodan lanarekin eta plazan egiten dodan lana Bertso Eskolan egiten dodanarekin. Mundu bateko hiru azpimundu dira.

## Konekta zaitez gurekin!

**aikor**  
txorierriko aldizkaria



**Facebook:**  
aikor.txorierrikoaldizkaria



**Twitter:**  
@AikorTxorierrri



**Webgunea:**  
www.aikor.eus







*“Txapelketa sasoian Beñat Ugartetxea, Fredi Paia eta Arkaitz Estiballesekin batu eta bertsoak botatzen ditugu astean behin”*

**Eta deskonektateko denporarik al dozu?**

Argi daukat hiru esparru ezbardin dirala eta baliteke egunen baten nekatzea, baina momentuz gustura nabil hiruretan.

**Zelako ikaslea zinan txikitan?**

Mugitua nintzan, baina ez neban arazorik. Klasetik kanpo asko mugitzen zan ikaslea nintzen.

**Zelakoak dira zureak?**

Ikasle jatorrak dodaz (barreak). Seigarren mailan dagoz. Bertsolaritza klaseak euskara ordu baten lantzen doguz. Horrezaz gain, Txorierriko eskola guztietan nabil klaseak emoten.

**Pozik egongo dira eskuratu barri dozun txapelarekin, ezta?**

*“Beteranoen artean betidanik egon da aurretiko jarrera barriei laguntzeko. Tradizino kontua da”*

Bai, asko. Sekulako harrera egin eustien oporrak baino lehenago, lotsatzeraino ia-ia (barreak): opariak emon eustiezan, eurek egindako bertsoak bota eustiezan eskola osoaren aurrean.

**Gaur dozun bizimodua txikitan amesten zenduanaren antzekoa da?**

Ez dot uste txikia nintzanean bertsolaria izateko ametsa nebanik. Ziurrenik, gehiengo bezala, kirolaria izan nahi neban. Bertsotan oso gazterik hasi eta oso gustura nengoan, baina pretentsino barik. Ez nintzan gainontzeko ikasleetatik nabarmentzen. Bizimodu hau etorri jatan gauzea izan da; ez dot bilatu.

**Zelangoa da bertsolari baten entrenamendua?**

## Lekue, gertuagotik

**–Edari gogokoena:**

Ardaoa.

**–Telesail interesgarria:**

Juego de Tronos.

**–Musika talde bat:**

Berri Txarrak.

**–Mendia edo hondartza?**

Erdibana.

**–Liburu gomendagarri bat:**

*Franco Hil Zuten Egunak* (Koldo Izagirre, Susa Narratiba).

**–Birtudea eta defektua:**

Lasaitasuna eta nagikeria.

Bertsolari bakotzak berea egiten dau. Batzuk ordu asko emoten dabez koaderno aurrean ideiak garatuten, errimak landuten... Nire kasuan, txapelketa sasoian Beñat Ugartetxea, Fredi Paia eta Arkaitz Estiballesekin batu eta bertsoak botatzen doguz astean behin, eta txapelketetan egiten ditugun bi ariketa simulatzen do-





*“Buruz-burukoa magia da niretzat. Ez dot sekula buruz-buruko ariketa txarreko lehiaketarik ikusi”*

guz: gaiak jarri eta kantau. Ondoren, ariketaren inguruko hausnarketa egiten dugu danon artean. Lau bertsolari oso ez-bardinak gara, eta gure arteko komentarioek asko lagunduten gaitue.

#### **Zer nolako harremana dozu beste bertsolariakaz?**

14 urtekin bakarrik gelditu nintzen herrian, eta bertsolariatzagatik ez bazan... bestelako bertsolariakaz harremanak egiten hasi nintzan. 17-18 urtekin bertso ibilbidea hasi neban, eta hemendik eta handik deitzen eustien kantateko. Askotan aurretik zehaztutako kide bategaz kantateko deituten eustien. Beste batzutan, ostera, niri eskatzen eustien beste bertsolariaren bat ekarteko. Horrela, kidetasuna

*“Xabier Amurizaren berbaldia oso hunkigarria izan zan niretzat, ez dot uste ahaztuko dodanik”*

garatuten joan nintzan. Giroa da gure artean, eta hori atzematen da: finalean bertso-kideak, arerioak izan arren, bere horretan ondo aritzea nahi dozu. Harreman sanoa dogu gure artean.

#### **Zelan alkarbizi dira hasibarraik eta beteranoak bertsoan?**

Beteranoen artean betidanik egon da aurretiko jarrera barriei lagunduteko. Tradizio kontua da, azpitik datorrenari lagundutearena. Plaza handi baten aritzea konpromiso handia da gazte batenetzat. Gure kasuan, edozein herritako bertso eskolako haurren bati kantatzea tokatzen jakonean, nolabait babesten saiatzen gara.

#### **Horrela hasi zinan zeu be, ezta?**

Eskolarteko baten hasi nintzen. Baina bertan gure adinaren ingurukoak egozan eta publiko gitxi. Oso gaizki pasatu neban. Orain trankil nabil, baina neureak be pasatu dodaz plazetan.

#### **Finala irabazi arren deseroso hasi zinan finalean... zergaitik baina?**

Batek daki. Askotan, jakin barik presionatzen dogu gure burua. Hasieran oso lotuta ibili nintzan. Halan da be, askotan pertzeptzino kontua da. Finala pasatu ostean neure bertsoak entzun nebazan, eta uste baino hobeto egozan, bereziki zortziko txikia eta hamarreko txikia. Batzutan bertsoa bakarrik dator. Beste batzutan, ekarri, ekarri, ekarri... eta ezin.

#### **Buruz-burukoan fin, ostera.**

Buruz-burukoa magia da niretzat. Ez dakit zeintzuk faktore gehitzen diran hor, baina ez dot sekula buruz-buruko ariketa txarreko lehiaketarik ikusi. Entzuteko momentu oso polita be bada. Kantau edo entzun behar dozu, baina belarri guztiak bertsolari bi horreen kantuetara dagoz. Oso gustura egon nintzan.

#### **Zelako arerioak izan zenduzan?**

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL  
EUSKALTEGIA



#### **BERBALDIA**

**“Neguko sasoi baserrian eta Aratustek Bizkaian”**

#### **ZATOZTE DANOK!**

**Gabriel Etxebarria eta Juan Luis Goikoetxea**

Otsailaren 23an, eguena  
Derioko Kultur Birikan  
10:00etan / 18:30ean

**Solasaldi informala izango dugu hau ikasleok ekarritako tostadak eta txokolatateak lagunduta**

**EDONORENTZAKO EKITALDI ZABALA!**



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrri.eu



Beñatek erritmoa eman eutsan ekitaldiari umoreagaz. Mirenen potoak kaltea barik mesedea egin eutsan, kantateko modua aldatu eutsalako. Ibonen bakar-kakoa asko gustatu jatan. Nereak freskurea emon eutsan finalari, lehenengoa, eta ez jakon handi geratu, ezta gutxiago be! Onintzak publikoarekin bat egin eban: dana da sentimendua eta publikoak ondo jaso eban bere mezua. Jonek seku-

lako maila dauka eta, oraingoan izan ez bada, laster jantziko dau txapela. Xabat finaleko sorpresa izan zan eta asko poztu nintzan: ez dot asko kantau beragaz, baina egon nazen tarte txikian goitik beherako pertsona eta bertsolaria dala uste dot, eta antzekotasunak daukaz nigaz: tipo apala da, ohiko gauzetatik kanpo gauza gitxi baina onak egiten dauezana...

*“Bertsozale alkartean lanean hasi nintzanean hiru irakasle geunden. Gaur 17 dagoz”*

#### **Txapela janstearen momentua, bakarra...**

Bakarra, baina ez da ezdozelangoa! Xabier Amuriza ez da edonor: bertsolaritza, euskalgintza eta kulturgintzan pisu izugarria dauen pertsona da. Berbaldia be oso hunkigarria izan zan niretzat, ez dot uste ahaztuko dodanik.

#### **Aldaketarik nabaritu ahal izan dozu bertsolaritzan hasi zinanetik?**

Transmisio esparruan lan asko egin da. Plazan ikusi egiten da. Bertsozale alkartean lanean hasi nintzanean hiru irakasle gengoan. Gaur 17 dagoz. Bertsogintza Bizkaiko ikasleen ehuneko handi batera heltzearen seinalea da. Osasuntsu gabiltza.

#### **Txapelketan izanda pasarte selebrerik izan dozu?**

Nire lehenengo final baten, Euskalduna Jauregian egindakoan (2002-2004), sekulako garriko mina neukan. Kartzelara joan ginan. Lurrean etzan eta beroketa ariketak egiten hasi nintzan mina kenduteko. Saioa igaro eta azken agurra bota ostean, jesarri eta ez egoan garriko minaren arrastorik. Finalaren tentsinoaren seinalea izan zan.

## Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonia: \_\_\_\_\_

e-posta: \_\_\_\_\_

IBAN+Bankuko zenbakiak: \_\_\_\_\_

Urteko kuota: 30 euro \_\_\_\_\_ Beste bat \_\_\_\_\_

Aldizkaria jasotzen duzu? \_\_\_\_\_

Sinadura \_\_\_\_\_

Orri hau helbide honetara bidali:

**AIKOR! Aldizkaria**

**Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio**



# Parte hartu aikor.eus webgunean!



## ZELAKO PARTE-HARTZAILEA ZARA?

### A ERABILTZAILEA

Erabiltzaileek AIKOR! aldizkariak argitaratzen dituen edozein artikulua edo sarreratan **iruzkina** egiteko eskubidea dute. Zure iritziak garrantzitsuak dira guretzat eta geure webgunea hobetzen laguntzen digute.

### B KIDEA

Aukera honek **konpromisoa** dakar: kideek, iruzkinak uzteko ahalmena izateaz gain, euren artikulutxoak argitaratzeko aukera dute. Horrela, Txorierrin gertatzen diren gertaeren berri emateko aukera dute (albisteak, taldeen egitarauak...).

## ZELAN EMATEN DA IZENA:

1. Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



**Izena eman**

Erabiltzaile izena

aikor

Pasahitza

\*\*\*\*\*

Sartu

Erabiltzaile berria naiz eta izena eman nahi dut

2. ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Facebook edota Twitterren erabiltzailea bazara, plataforma berri horien bidez izena eman dezakezu ere.

3. Kide bezala erregistratu nahi baduzu, erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

# Car Sharing modernoa: mikroegoeren amaiera

Iker Maguregi bizikleta tolesgarri moderno horietakoan heldu da elkarrizketara. Laguncar autoak konpartitzeko plataformaren sortzailea da, eta bere autoa beste pertsonekin elkarbanatzen du egunero. Euskal Herrian milioi bat auto inguru daude eta bertako familien % 20 inguruk auto bi ditu. Auto horiek ordu ugari erabili gabe dauden argudioarekin, Laguncarrek etekin handiena atera nahi die, eta bide batez autoa behar dutenei denboraldi batez uztea.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Nork esango luke orokorrean gure autoaren % 5ari baino ez diogula etekina ateratzen? Zenbat kilometro egiten ditugu egunero autoz? Jende askok autoa haurrak eskolara eramateko, enkarguak egiteko edota lanera joateko erabili ohi du, eta normalean horretarako eguneko 24 orduen minutu batzuk baino ez ditugu erabiltzen. Demagun auto bat erosi dugula lanera joateko eta bestelako bidaiak egiteko. Demagun ere lanera joateko 20 minutu ematen ditugula. Joan eta etorrien artean 40 minutu baino ez daude. 40 minutu horiei bestelako bidaiak gehitzen badizkiegu (aisialdia...), gehien jota ordu bate erabiliko genuke geure autoa (kontutan izanda lana etxetik gertu izango bagenu, noski). Hori dela eta, autoak erabili gabe dauden ordu horiei etekina ateratzeko asmatu zen Laguncar.

2016ko ekainean sortu zuen Iker Maguregik, autoari errentagarritasuna ateratzeko eta behar duten pertsoneri, autoa propietatean izan ez arren, autoz mugitzeko aukera emateko. Auto arrunt batean 3.000-4.000 euro inguru inbertitu behar dira urtero gastu finkoen (balioa, udal zergak, IAT-a, aseguroa...) eta aldagarrien artean (erregaia, mantentze lanak, konponketak...). "Laguncarrek autoaren gastu finkoak elkarbanatu egiten dira, erabiltzaileari autoa gidatzeko aukera emanez", adierazi du Ikerrek. Zerbitzua autoa bidaiatzearen behar duten pertsoneri zuzenduta dago bereziki: "Mikroegoerei irtenbidea emateko ideala da: lanera trenez banoa eta ordu tarte horretan beste edonork nire autoa erabili nahi

*"Car Sharingaren adibidea da Laguncar: inork ez digu kotxe berririk ipintzen. Herritarrok gara protagonistak"*

badu, etekina atera lekioko nire autoari", argitu du ekintzaileak.

Proiektuaren ideia 2005ean bururatu zitzaion Ikerri eta 2008an Eusko Carsharing Elkarteak jaio zen. Car sharing-a edo auto-partekatzea bi eratakoa izan daiteke: car sharing tradizionala alde batetik, erakunde publiko zein pribatu, enpresa

edo elkarte batek ibilgailuak jartzen ditu (bizikleten maileguarekin gertatzen den bezala) alokatu ahal izateko: "Horrela sortu ziren Ibilkari (Bilbo), Ukanauto (Uribe Kosta) eta Auzokar (Arratia) egitasmoak". Beste alde batetik Laguncar dago, car sharing modernoaren adibidea. Inolako erakunderik egon gabe, herritarrek bereak euren auto propioak partekatzen dituzte: "Inork ez digu kotxe berririk ipintzen. Herritarrok gara protagonistak", argitu du. Euskal Herrian ez dago antzeko enpresarik, eta Laguncarrek 100 inguru dauzka momentura arte.

Estatu mailan, ostera, bereizketa egin beharko litzateke auto-alokatzaile eta partekatzaile modalitateen artean, oso ezberdinak baitira: auto-alokatzaileak, irabazi asmoko enpresak, kontratu baten





bidez auto bat eskaintzen dio bezeroari, denbora tarte batez. Partekatzaileak, bestalde, irabazi asmorik gabekoak dira eta kontratua sinatu baino, erabiltzailea bertako bazkide egin behar da: klubaren parte izan. Horrela, konfidantzaz edota *fair play*-ean (tratu justua) oinarrituriko erabiltzaile taldeak sortzen dira. Hortaz, bazkideak ez dira guztiz ezezagunak; gertukoak eta konfidantzakoak dira Laguncar komunitateko erabiltzaileak: "Gauza asko partekatzen ditugu lagunaren artean. Ez diozu autoa ezezagun bati itsu-itsuan utziko", azaldu du.

Laguncarren izena ematean, bi perfil sor daitezke: autoaren jabearena edota erabiltzailearena. "Eraldaketa soziala da autoaren erabileran", adierazi du Ikerrek. Azaldu duen bezala, Laguncarren funtzioa jabeak eta erabiltzaileak harremanetan jartzea da, Fernando de Rojasen 'Zelestina' bezala: "Pertsonak kontaktuan jartzen dira. Normalean jende hurbila edo konfidantzakoa izan ohi da", azaldu du Maguregik. Horrela, jabe-erabiltzaile taldeak sortzen dira. Gaur egun laupabost talde daude Bilbon. Talde bakoitzak

## "Gauza asko partekatzen ditugu lagunaren artean. Ez diozu autoa ezezagun bati itsu-itsuan utziko"

arau batzuk ezartzen ditu: salneurria zehaztu (kilometroaren prezioa), aseguruaren nondik norakoak, bestelako enkudeaketak (autoaren giltzaren kopiak egin behar diren ala ez, kolperik izanez gero arduraduna nor den...). "Autoa betidanik konpartitu dugu noizbait. Gure apustua elkarbanatze horri frekuentzia eta prezio bat ezartzea da", argitu du Maguregik.

### Europa: aldaketaren aitzindaria

"Autoak inpaktu soziala dauka, eta hori ez da aintzat hartzen askotan. Kotxe gutxiago izango bagenitu hobeto biziko ginagake", aitortu du Ikerrek. 70. hamarkada inflexio puntua izan zen Ameriketan:

"Garai hartan zera esan ohi zen: 'Autoarekin ezin gara ogitan joan'". European, ostera, 80. hamarkadaren bukaeran izan zen. Ekologisten arabera, ez zeukan inolako zentzunik autoz joatea edonora. 90. hamarkadan, garraio publikoan gabeziak detektatu ziren: autobusak eta trenak ezin ziren toki guztietara heldu, ez teknikioki, ez ekonomikoki; autoa, ostera, arrakastatsua da eta independentzia dakarkio erabiltzaileari. Garraio publikoaren hutsune horretan Car Sharing-a jaio zen, eta erakunde publikoek garraio publikoaren fenomeno berri honekin integratzen hasi ziren.

Carsharing-aren parte izatea filosofia aurreztailearen alde egotea da. Azken batean, plataforma honen erabiltzaileak ez dira autoen menpe bizi: "Sisteman sartzen diren pertsonak, auto propioak ez izatean eta beraien kostua zein den jakinda, autoaren erabilera zentzuduna egiten dute, gaur egungo erabilera inertziala ekidituz".

**Informazio gehiago:**  
[www.laguncar.eus](http://www.laguncar.eus)



**18** etxebizitza kooperatiban kostu-prezioan  
2, 3 eta 4 logelakoak, garajea, trastelekua eta hornitutako sukaldeak barne.  
Duplexak eta atikoak terraza zabalekin.

**184.500** €-tik hasita

**26** udal etxebizitza tasatuak kooperatiban kostu-prezioan  
2 eta 3 logelakoak, garajea eta trastelekua barne.  
Atikoak terraza zabalekin.

**152.500** €-tik hasita

GESTIOA:  

INFORMAZIOA ETA SALMENTA: 

FINANTZADAZIOA: 

**656 78 12 41**  
[arteagabizigunea.com](http://arteagabizigunea.com)

# Klasikotasunaren eta freskotasunaren bidegurutzan

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

## Zelan bururatu zitzaizuen Hardcore.exe taldea martxan jartzea?

10 urte daramatzagu rap-a egiten, bakoitza bere kabuz. Bada, joan den urtean taldea sortzea erabaki genuen eta Sondikako inauterietan eskaini genuen lehen kontzertua. Rapak Txorierriko zenbait gazte batu gaitu.

## Zer nolako gaiak jorratzen dituzue?

Adiskidetasunaren, jaien, ondo pasatzearen ingurukoak izan ohi dira. Adar-jotze erako Egotrip estiloa lantzen dugu.

## Eta baseak?

Interneten bilatzen ditugu. Normalean erabilera librekoak deskargatzen ditugu. Hala ere, gure asmoa rap beatmaker txorierritarra topatzea da. Ateak parez pare irekita dauzkagu proposamenetarako, argi gera dadila.

*“Rapak Txorierriko zenbait gazte batu gaitu”*

*“Project HX-en parranda eta kritika politikoa egiten dugu”*



## HARDCORE.EXEKO RAPEROKAK

Baseri Antzokian 200 pertsonari kontzertua eskaini ostean, Hardcore.exe taldeko Kuko, Gemelo, PakeWake eta Kold, Reiro eta David raperoek, areto nagusiko pistan daude oraingo honetan, kafea hartzen. Taldeaz eta labetik atera berri duten Project HXi buruz aritu dira, Hardcore.exe urteurrena betetzeko zorian dagoelarik.

### Erreferenterik?

Rap klasikoa eta adar-jotzekoa izanda, erreferente nagusia Violadores del Verso taldea da. Trap estiloa saihesten saiatzen gara (motelagoa, auto-tunea darabilena), eta 90. hamarkadako taldeen adar-jotze rapean zentratzen saiatzen gara. Klasikotasuna freskotasunarekin uztartzen saiatzen gara.

### Project HX da zuen lehenengo maketa. Nola definituko zenukete?

Bai diskoaren azala, bai edukia Nima Nourizadeh-en Project X filman oinarritutakoa da. Bertan, parranda eta kritika politikoa egiten dugu. Rap borrokalaria nabari da bertan, eta entzuleak hausnarketara bultzatu nahi ditugu. Horrez gain, hiruzpalau abesti adar-jotzaile dauzkagu ere bai (b-reak).

### Euskerak tokirik badu?

Kontzertuetan bereziki bultzada handia ematen diogu: Sakatu Elektrotzaranga taldearekin harremanetan gaude. Musika konposatu digu euskaraz kantatzen diren abesti batzuetan, eta horiekin rap-ska estiloan kantatzen dugu. Gainera, bestelako abestiak dauzkagu euskara hutsean eta gehiago produzitzen jarraitzeko asmoa dugu.

### Txorierriko labela darama Project HX-ek

KolDek soinu ikasketak ditu eta hiruzpalau hilabete eman ditugu grabaketa saioetan, Larrabetzun eta Bakion. Mikrofonoak eta soinu-txartela erosi eta gogor ekin genion lanari. Ikus-entzunezkoetan, informatikan eta soinuan baliabideak ditugun mutilak gara. Guztion artean aurrera ateratako proiektua da. Hirugarren pertsonen beharrik ez dugu izan, eta aberasgarria da, benetan.

### Zertan bereizten zarete gainontzeko taldeetatik?

Beste pertsona batzuekin elkarlanean aritzea gustatzen zaigu, nahiz eta bestelako estilokoak izan: ezerk ez gaitu musikaz gozatzeaz galaraziko. Sakaturekin egin duguna horren adibidea da. Txorierrin musika talde ugari daude, eta gehienek artean ez





*“Beste persona batzuekin elkarlanean aritzea gustatzen zaigu, nahiz eta bestelako estilokoak izan”*

*“Badirudi haranean raperoei ez gaituztela behar bezala aintzat hartzen”*

da ia elkarlanik egiten. Musikak muga horiek desegin beharko lituzke. Elkartasuna esatean ere taldeen arteko baturaz eta lokalek taldeei dieten errespetuaz ari gara. Haranean zenbait tokitan izan gara eta badirudi raperoei ez gaituztela behar bezala aintzat hartzen. Badirudi askotan etxetik kanpo etxean baino hobeto tratatzen gaituztela.

**Baserri Antzokian, ostera, ondo baino hobeto izan zineten, ezta?**

Bai, noski! uste baino hobeto. 200 pertsona izan genituen aurrean eta giro izan zen. Tratu bikaina izan genuen, eta eszenatokia zein proiektorea itzelak izan ziren.

**Zelan dabil Rap-a Txorierrin?**

Txorierrin raperoak egongo dira, baina modu ofizialean ez dugu talderik eza-

gutzen. Euskal Herri mailan, esan daiteke gure generoa gainontzekoak baino gutxiago errespetatzen direla. Idazleak eta musikariak gara. Euskal Herrian gero eta rap talde gehiago daude. Irratia piztu eta Euskadi Gaztean entzun daiteken rap esanguratsuen Esne Beltzak egiten duen rap-fusioa da. Rap puruagatik ez da ia apusturik egiten.

**Dendatik alde egiten dute...  
% 30ra\* heldu ahal den beherapenak,  
munduko besaulki onenetan**

DERIO: Seminario  
944 545 147

LEIOA: La Avanzada, 80  
944 316 516

**SUTE DELUX**  
MARCA EKCLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

[WWW.SUITDELUX.COM](http://WWW.SUITDELUX.COM)

\* Eskaintza eskusiboa, erakusgai dauden besaulkietan eta Stressless pufetan. Eskaintza ezin da metatu bestelako eskaintzekin. Aie mugatuak.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Egun batetik bestera bizitzari nora-bidea aldatu dion pertsona horietakoa da Joana. Zapata-denda batean sei urtez lan egitetik lehen sektorean lan egitera igaro zen denbora gutxian. Gaur egun, karakolgile eta baserritar ekologikoa da, eta lurrak ematen dizkion produktueta-tik bizi da, Erandion daukan esplotazioan.

Joana arte ederretan lizentziatu zen duela urte batzuk. Unibertsitateko ikasketak bukatu bezain pronto, zapata-denda batean lan egiten hasi zen, eta sei urte eman zituen bertan. Lana gustuko zuen, baina egun batean, nagusia jubiltu eta denda itxi zuen. Kanean geratu zen Joana. Langabeziak dituen egun libre horietan, txakurra Zamudiotik paseatzen ari zelarik, barraskiloak ikusi zituen bide ertzean. Bizitza aldatuko zion ideia bururatu zitzaion orduan.

“Barraskilo asko daude kanean. Horiekin negoziua egin al daiteke?” galdetu zion bere buruari. “Eta barraskiloak batu eta Bilboko Erriberako azokan salduko banitu?”. Etxera heldu eta interneten irakurri zuen hori egin ahal izateko haztegia izan behar zuela. Horrexegatik, Derioko Nekazal eskolara jo eta zalantza guztiak argitu zituen: “Seme-alabak hartu eta bertara hurbildu nintzen. Gazteentzako diru-laguntzak zeudela ikusi nuen eta lanari ekin nion”.

Momentu hartatik aurrera, segundo batean bururatu zitzaion ideia hura martxan jartzea erabaki zuen Ekobaserriproiektuarekin, 2015ean. Nekazaritza ekologikoaren ingurukoa da, eta bertan ere Araba eta Gipuzkoako lankide batzuekin Caracoles Gorbea Karakolak enpresa sortu zuen. Enpresaren helburua barraskiloak hazi eta saltzea da: “Produktu beretsuak saltzen ditugu eta kide bakoitzaren irabaziak norberarentzat dira: kide bakoitzak bere lurraldean sal-

*Familia nekazaria izan da betidanik eta amaren 2.000 m<sup>2</sup>ko lurrak erabiltzen ditu bere aktibitaterako*

# Lehen sektorera bueltan

JOANA LARA | karakolgile eta nekazari ekologikoa



tzen ditu produktu propioak”, adierazi du 37 urteko nekazariak.

Astehelentetik igandera, goizean goiz, esplotaziora heldu, animaliei janaria eman (oilok, oilarrak, txakurrak, katuak...) eta ortuko beharrak egiten ditu Joanak. Urtarrileko egun hotz hauetan ortua lokatzez beteta dago, eta Joana goitik behera zikinduta dago. Nekazari batek proiektu propioa martxan jartzeko topatzen duen lehen oztupoa lursail propioa izatea da askotan: “Lehen sektorean lurrik gabe aritzea ezinezkoa da”, argitu du. Bere kasua, zorionez, bestelakoa da: familia nekazaria izan da betidanik eta

*“Normalean poteratzen ditugu, baina badira barraskiloak fresko nahi dituzten bezeroak”*

amaren 2.000 m<sup>2</sup>ko lurrak erabiltzen ditu bere aktibitaterako. Lurgunea izanda, indartsu hasi da lehen momentutik: “Lorra kooperatibak eskaintzen duen Lehen Instalazioko Dirulaguntza hautatu eta ortu ekologikoa zein karakolen haztegia eraiki nituen Martiartun (Erandio)”. Ortu ekologikoa izateko, ENEEken izena eman behar da zigilu ekologikoa eskuratzeko, eta horrela egin zuen Larak.

Ortu ekologikoan batutako produktuak Zamudioko familiei zuzenean saltzen dizkie. Esplotazioan oilok eta oilarrak ere badaude, eta oiloen arraultzak saskietan sartzen ditu gainontzeko produktuekin. Ortu jasotakoa hilako lehen larunbatean Zamudion egiten diren azoketan eta bestelako ferietan saldu egiten ditu Joanak. Batez ere salmenta zuzenaren aldekoa da zamudioztarra.

## Labeldun karakolak

Gorbea Karakolakeko kideak barraskilo bereziak erosten ditu salmentarako: Hélix Aspersion Müller motakoak, frantses



# , arin batean



azaldu du Larak. Urria eta azaro bitartean batu, garbitu eta ontziratzera eramaten dituzte: "Normalean poteratu egiten ditugu, baina badira barraskiloak fresko nahi dituzten bezeroak, 40 urtetik gorakoak batez ere". Azoketan, adintsuek arraro ikusten dituzte barraskiloak poteratan: "Gazteak, osterak, garbituak eta poteratuta nahiago dituzte, lan gutxiago ematen dute-eta". Berrikuntza modura, iaz barraskiloak saltsan hasi ziren saltzen.

*"Nekazal munduan lan egiten duenak bokazioagatik da gehienetan: ez da aberasteko ofizioa"*

genetikako gazteak, hain zuzen ere. Martxo-apirilean karakolak eta eurentzako pentsuak erosten dira. Narrastiak plastikozko oihalez estalitako hazitegian sartu egiten dira: "Normalean lur azpian ezkutatzen direnak udaberrian agertzen dira",

Barraskilo horiek, azoketan eta zuzenean salmentaz gain, Txorierriko harategi, denda eta jatetxe batzuetan ere saltzen ditu Joanak: "Pasa den urtetik, Euskal Herriko BM supermerkatu batzuetan salgai dauzkat karakolak". Pasa den urtean 900 kilo barraskilo batu zituen Joanak esplotazioan: "Helburua gehiago saltzea da. Espero dut datorren urtean 1.500 kilora heltzea. Hala ere poz-pozik nabil ahoz-aho egindako be-

zeroekin eta eskerrak eman nahi nizkioke nire produktuen alde apustu egin duen edonori eta etorriko direnei". Zamudioztarraren ametsa hainbeste maite duen lehen sektoretik duhintasunez bititza da: "Nekazal munduan lan egiten duenak bokazioagatik da gehienetan: ez da aberasteko ofizioa. Ezta gutxiago ere!".

**Harremanetan jartzeko:**

ekobaserri@gmail.com

Facebook: Caracoles-Gorbea-karakolak



Urtzagia Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierr.net  
48100 - DEFO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierr.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



## ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

### FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazioko teknikaria  
Eni mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produkzioaren Programazioko goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

### SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

### ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

### MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)



# Jaurtiketaren zirrara



t: Gaizka Eguzkitza

## TXORIERRI EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA

Ehiza eta gizakia betidanik ibili dira lotuta, eta Zamudion ere egon dira ia betidanik ehiztariak. Txori-erri Ehiza eta Arrantza elkarte 1954an jaio zen. Gaur egun, taldeak 200 bazkide ditu eta baimenak eta lizentziak kudeatzeaz gain, plater-tiroketa ere sustatzen du. Aurten eremua homologatu nahi dute. Euren esanetan, jaurtitzea harra-patzen duen kirol horietako bat da.

*“Adinak ez dauka  
ehizan garrantziarik,  
hau da, edozeinek  
badu jartitzeko aukera”*

“Gure elkarte aspaldikoa da herrian. Garai batean, Zamudion futbol taldea eta ehiza elkarte baina ez zeuden. Azken bo-lada honetan, aldiz, gero eta elkarte gehiago sortu dira herrian”. José Mari Olarraren Zamudioko ehiza elkartearen idazkariaren hitzek argi eta garbi azaltzen dute ehiza elkarte tradizio handiko taldea dela Txori-erri. Izan ere, Zamudioko handien-tariko bat da, gaur egun 200 bazkide bai-no gehiago dituelako.

Bazkide gehienak zamudioztarrak dira, baina 10 derioztar inguru ere badaude. “Betidanik ibili gara Deriokoekin, baina gaur egun, ez dugu beste herrietako bazkiderik onartzen”. Adinari dagokionez, denetarik dago bazkideen artean. “Golfean

gertatzen den moduan, adinak ez dauka ehizan garrantziarik, hau da, nagusiek zein gazteek badute jaurtitzeko eta animaliak harra-patzeko aukera. Nik, esate baterako, 77 urte ditut eta jarraitzen dut jaurtitzen (kar, kar)”, dio José Marik.

Adinak anitzak dira, bai, baina kideen sexua ez, ordea. Bazkide bat izan ezik, beste guztiak gizonezkoak dira. “Emakume

bat bada gure kidea. Ez dakit zergatik ez dagoen gehiagorik, neskak jaurtitzaile tre-beak ere badirelako. Esate baterako, garai batean Maria Quintanal gurekin ibili zen jaurtitzen. Mariak zilarrezko domina lortu zuen 2004an, Atenaseko Olinpiadetan, plater-tiroketan”.

Txori-erri Ehiza eta Arrantza Elkartearen izen ofiziala izan arren, oso gutxi-arranztatzen dute elkartearen. “Txori-erri ibai gutxi ditugu eta agian horregatik ez dago zaletasun handirik. Nik bai, nik lehen arrai-nak harra-patzen nituen, hegaluzeak-eta, eta itsasontzi batzuk izan ditut”. Arranztazalerik ez egoteak lana aurrezten die el-kartekoei. José Marik Pedro Mari Landeta presidentearekin eta beste lauzpabost lagunekin batera kudeatzen du taldea. Eta horrek lan itzela dakar: kideen aseguruak,



*“Aurten eremua homologatzea lortzen badugu, tiraketak nahi dugunean antolatu ahal izango ditugu”*

lizentziak, baimenak... “Gainera, ehiztariek arazoren bat izanez gero, laguntu egiten diegu hori konpontzen”.

#### Tiro-eremua

Ehizari lotutako inprimaki guztiak ku-deatzeaz gain, Zamudioko elkarteak tiro-keta ere sustatzen du. “Kirol olimpikoa da eta oso polita da, oso zirrargarria. Beste aukera bat da jaurtitzea gustatzen zaigunontzat. Tiro-eremua daukagu. Antzina, futbol zelaian bertan egiten genituen tiraketak, gero beste eremu batean, Daños auzoan, eta azken bost urteotan Geldon gaude, futbol zelaiaren goiko aldean. Estatuan eremu pilo bat daude, baina Euskal Herrian ez dago askorik: batzuk Gipuzkoan eta bakarra Bizkaian, Gallartan. Guk geurea dugu, baina ez dago homologatuta”.

Eta Zamudioko eremua legeztatzen alade gogor egingo dute lan elkartekoek, herriko alkatearekin batera. “Oso zaila da tiro-eremua aurrera eramatea. Inprimaki piloa bete behar dira eta oztopo piloa jartzen dizkizute Guardia Zibilak eta Espainiako Gobernuak. Gainera, ekologistak ere kezkatzen dira. Urtean 5-6 tiro-saio antolatzen ditugu, eta tiraketa bat egin nahi dugun bakoitzean, paper piloa aurkeztu behar dugu. Aurten eremua homologatzea lortzen badugu, tiraketak nahi dugunean antolatu ahal izango ditugu”.

José Marik ekologisten kritikak aipatu ditu. “Batzuek diote: *Ze pena, txoritxo hilko duzu*. Baina nik beste ikuspuntu batetik ikusten dut. Ehiza gure barnean egon da beti: gizakiok bizirauteko harrapatzen genituen animaliak. Gainera, kontrol zorrotzak daude ehizaren inguruan, eta ezin da nahi dituzun animaliak ehizatu, ekosistemak ez zapuzteko. Jaurtitzea orohar gustatzen zait, baita armak, ehiza eta tiroketa kirola bera ere. Eta jaurtitzeak, golfari gertatzen zaion moduan, benetan harrapatzen zaitu. Sinplea ematen du, baina probatzen duten guztiei gustatzen zaie”.



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:  
TXARTELEDEGIAN  
Edozein ekintza hasi baino  
ordu bat lehenago



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**SONDIKAKO KULTUR ETXEA**  
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)  
Telefonoa 94.453.64.13



**MONSTER TRUCKS**  
105' AG (2D)  
Otsailak 5, 17:00



**ORM**  
80' AG (2D)  
Otsailak 12, 17:00 (EUSKARAZ)



**Blinky Bill, EL KOALA**  
93' AG (2D)  
Otsailak 19, 17:00



**LOS DEL TUNEL**  
97' EG-12 (2D)  
Otsailak 19, 19:30



**BALLERINA**  
89' AG (2D)  
Otsailak 26, 17:00 (EUSKARAZ)



**SILENCIO**  
159' (2D)  
Otsailak 26, 19:30

ZINEA



**CONTRATIEMPO**  
106' EG-12 (2D)  
Otsailak 5, 19:30



**FIGURAS OCULTAS**  
127' AG (2D)  
Otsailak 12, 19:30



**MANCHESTER FRENTE AL MAR**  
100' EG-12 (2D)  
Otsailak 19, 19:30



**LEGO BATMAN, LA PELICULA**  
105' EG-12 (2D)  
Otsailak 26, 17:00

2D: 4 €    3D: 6 €

\*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldatetarik jasan ditzake

**ETA OTSAILEAN...**

**ES POR TU BIEN**  
**MANCHESTER FRENTE AL MAR**  
**LEGO BATMAN, LA PELICULA**

t/a: Jose Angel eta Aner Mentxaka

Behin Erandioko Goierriko mendietatik oinez nembilela, baso sakonean harrizko eraikuntza berezi batzuekin egin nuen topo. Kanbodiako Angkor edo Mexikoko oihanetatik joanda Maien tenplu bat aurkitzea besteko zirrara eragin zidan. Zer ziren? eta zer egiten zuten goroldioz erdi estalitako harrizko etxola horiek han? Baina, lasai, ez dute milaka urte, bertan, 1914-1915 urteak agertzen dira eta. Beraz, ehun urte "besterik" ez dituzte. Ospatu beharko.

Lekua Urederra izenarekin ere ezaguna da. Harrizko depositu horiek ingurutako urak Getxoraino eroateko egin da daude. "Aguas de Guecho-Urederra-1914-1915" agertzen da harriari zizelkatuta. Erandioko Unbe eta Goierri arteko urak Ugarte-Martiartutik Getxoraino eroateko obra itzela da. Hauek ikusi ahal izateko, eta gehiago, ondorengo ibilbidea da proposatzen dudana, "Uraren ibilbidea". Loititik Unbera doan errepidean, Akarlanda pasatu ostean, Andramariturriko, bertakoentzat Tellerita, aparkaleku handian hasi, eta 7 kilometro oinez egin ostean bertan amaitu.

### Andramariturri

Garagardotegi ondoko landatik oinez hasi eta eskumatara, pinu artetik doan lehen pista hartu beherantz. Berehala, eskuinaldean, metro batzuetara dago Andramari iturria. Garai baten asko etortzen ziren honaino, bertako ura etxera eroateko, oso ona zelakoan. Gaur egun egoera negargarrian dago.

### Azkaiturri erreka

Itzuli pistara, eta behera. Utzi lehen eskuineko bihurtunea eta aurrera, bigarren bihurtunean bide nagusia eskuinean egiten duen arren, ezkerretara jo. Eta kontuz, urrats batzuk egin ostean estrata ixten doa, baina eskuinean nahiko zapal dutako bidezidor bat dago aldatza behera. Eta jarraitu bideari pinuditik, imajinario apur bat erabiliz. Helburua errekarra heltzea da, Azkaiturri izenekoa. Enbor edo harrien gainetik gurutzatu eta hormigoizko pista agertuko da.



Andramariturritik edaten.



Azkaiturri erreka gurutzatzen.

## Uraren ibilbidea

Mahastiko goiko aldeko bistak



### Mahastizarra

Laster helduko gara mahatsondo handi batera, mahats hauen mostoa erabilita txakoli ederra egingo da. Ezkerretik mahastia inguratu eta gora egin. Goian, nekea apur bat arintzeko gelditu eta gozatu paisaiaz, Ganekogorta, Eretza, Trianoko mendiak, Serantes, itsasoa... Aurrera egin lurrezko pistatik eta gomazko pneumatiko handi bat aurkitzean, ezkerretara. Mendixkako tontoretik joango gara une batean, eukaliptu handi batzuk aurkitzean, bidexkak behera egingo du,

eskuin-ekzer lehen ur depositua aurkitu arte.

### Ur deposituak

Lehenean gelditu eta... begiratu barru aldeko urak, kanpoaldeko inskripzioak, goroldioak... Ezkerretara eginez, ekialdera, baso itxian, beste depositu bat aurkitzen da, eta apur bat urrunago beste bat. Pentsatu azpialdetik ura doala eta aldapa gutxi izan behar duela, beraz, altura mantendu. Bide beretik itzuli lehen ur deposituraino.





Basoa ederra da inguruan

Aurkituko dugun azken ur depositua.



Urederra zizelkatuta.

Zubia eman arren, ez da. Ura daroa barruan.



## Baso ederra

Ur deposituaz gain, badago zertza gozatu inguru honetan. Landatutako eukalipto eta pinuen altuerak ikusgarriak dira, zuzen-zuzenak zeruraino. Gaztainondoak ere badagoz, haritz zaharrak, lizarrak... Hezetasuna handia da urte osoan eta urtaroren arabera koloreak oso ezberdinak, udaberrian eta udazkenean joateko aproposa..

## Harrizko eraikuntza gehiago

Orain mendebalderantz jo. Bide osoan harrizko arketa antzekoak aurkituko dituzu eta bi zubi dotore. Lehen txikiago bigarrena baino. Gaietik ondo pasatu daitekeen arren, ez dagoz hor zubiarenak egiteko, ur tutua trokaren beste aldera eroan ahal izateko baino.

## Ugarteko dorretxeak

Aurrera jarraituta etxe batera heldu eta asfaltatuko bidera irtengo gara. Ugarte auzoan gaude. Laster aurkituko ditugu,

gaur egun nahiko desitxuratuak, bi dorretxe izandakoak, bata kartzela ei zen. Hauek pasatuta utzi asfalto eta hartu eskuineko pista. Han beste ur depositu bat aurkitzen da, handiagoa eta harrizkoa hau ere.

## Martiantuko dorretxea

Pista jarraitu eta txabola baten hesiak ezkerretik igarota, belar landa politetik errekarra helduko gara, hormigoizko zubi zabala aprobetxatuta gurutzatuko duguna. Berrito asfaltatuzko bidea, ezkerretara

jarraitu eta laster Martiantuko dorrea eta San Antonio ermita ikusiko ditugu. Dorretxea mendi artean bakartuta dagoela eman arren, Getxo eta itsasoa ez daude oso urrun.

Itzulia errepidetik egingo dugu, kirolkluba eta txaleten artetik doana hasieran. Ura erabiltzen zuen errota izandako base-rria ezkerretara utzi, eta laster ezkerreko bidea hartu, lehenago egon garen Ugarte auzora doana. Baina berandu baino lehen eskuinera egin eta aldapa gora Andramariturriera, hasi garen lekura, helduko gara.

# Izpiritu kritikoa, bizitzan nabigatzeko

t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

OHOko 8. mailan nengoela kontinenteen jitoaren inguruko lan bat egin behar izan nuen. Ohiko moduan, egiaren jabe zen Larousse entziklopediara jo beharrean, etxean neukan beste geologia liburu batean oinarritu nintzen, 1967koa, zeinek horrelakorik ez zegoela "frogatzen" zuen. Aurkezpen bitxia egin nuen gelan, eta Gabriel maisua harrিতa utzi nuen... Bere zuzenketa ostean, niri tokatu zitzaidan. Ezagutza txoko eta pertsona jakinetan zegoen. Informazioa ere bai, eta nahiko garbi, gainera, iturri mugatu horien beiraren kolorea. Beste pausu bat eman eta gehiago sakontzea, pribilegiatu gutxi batzuen eskura baino ez zegoen.

Sakelekoak orokortu direnetik informazioa nonahikoa da. BTEKera datozen 12 urtetik gorako gehien-gehienek dute mobila eta egunero internetera konekta-

tzen dira<sup>(1)</sup>. Gazteen Euskal Behatokiaren arabera, 15-29 urte bitarteko % 99k sare sozialen bat erabiltzen du<sup>(2)</sup>: Youtubeko bideoak ikusten dituzte, Snapchat zein Instagramen bidez argazkiak eta bideoak partekatu, Whatsapp edo Facebook, denetarik bidaltzeko.... Baina Enrique Dansek dioen bezala<sup>(3)</sup>, ba ote dira benetan natibo digitalak gazte hauek? Ba al dira fake (albiste faltsuak)<sup>(4)</sup> edo guztiz partzialak direnak bereizten?

Stanford unibertsitatearen ikerketa baten arabera<sup>(5)</sup>, gazteek zailtasunak dituzte, iragarki bat albiste batetik bereizteko edo nabarmenki gezurrak diren albisteak identifikatzeko. Aski da mezu edo meme<sup>(6)</sup> bat edozein saretan zabaltzea eta ez da kuestionatzen nork hasi duen, interes maltzurren batekin zabaldu den, ez eta oinarririk duen ere. Ikerketan, adibidez, deformatuta zeuden lore batzuk agertzen ziren ustez Fukushima inguruan

dagoen erradioaktibitatearen eraginez. Hamar ikasletatik lauk froga garrantzitsutzat hartu zuten, nahiz eta inon ez zen agertzen nork eta non aterata zegoen.

## Otsoa, ardiak zaintzen

Abenduan, Facebookek albiste baten egiazkotasuna zalantzan dagoenean abisua jarriko duela iragarri zuen<sup>(7)</sup>. Baina, noski, informazioa manipulatzeko bide bat gezurrak zabaltzea bada ere, mezuen aurkezpen eta sailkapena zelan egiten den ere badauka eragin handia. Facebookek gure orrian berriak lehenesteko egiten duena hain zuzen ere. Otsoa, ardiak zaintzen, beste behin ere?

Lorenarekin bat nator<sup>(8)</sup>, bide bakarra gure gazteak (eta gu) izpiritu kritikoa heztea da, geure buruari eta ingurukoiei galderak egitea, errealitatearekin kontrastatzea... Interneten nabigatzeko ondo etorriko zaigu. Bizitzan nabigatzeko ere bai.



(1) Informazioaren gizartearen egoera Euskadin 2015, eustat.eus:

<https://goo.gl/NE1Q4G>

(2) Gazteen Euskal Behatokia, sare sozialen erabilera:

<https://goo.gl/ZtfoWR>

(3) El pensamiento crítico y su desarrollo, Enrique Dans:

<https://goo.gl/f3VrYK>

(4) How Fake News Goes Viral: A Case Study, Sapna Maheshwari, New York Times:

<https://goo.gl/0uZ2eW>

(5) Evaluating information: the cornerstone of civic online reasoning, executive summary, stanford history education group produced with the support of the Robert R. McCormick foundation:

<https://goo.gl/VKPPFg>

(6) Euskalterm: Sare sozialen edo posta elektronikoaren bidez hedapen zabal eta lasterra duen umorezko mezu simplea; gehienetan, jatorrizko irudi, bideo edo testu baten aldaera satirikoa behin eta berriz eginez transmititzen da.

(7) Facebookek abisua emango du albiste bat zalantzezkoa denean, eitb.eus:

<https://goo.gl/QWmeXi>

(8) Pensamiento crítico en la era digital, @lore-tahur:

<https://goo.gl/iOuAq1>

**OSTEOPATIA-ZENTROA**  
ORDEZKO TERAPIAK

*Lasai*

**Luis M<sup>a</sup> Asensio**  
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO  
Tel: 94 454 10 28 - Sakelakoa: 655 74 24 69  
[osteopatialesai@gmail.com](mailto:osteopatialesai@gmail.com)

Arantza Amondarain Laso  
Ginekologoa

Tratam. etorbidea: 3-4  
413. Sulegia  
48160 Derio

Telefonoa eta faxa:  
94 454 44 98  
[a.amondarain@euskalnet.net](mailto:a.amondarain@euskalnet.net)

**elekma**

URRATZAREN BAT DUTEN ETATRESNA ELEKTRIKO BERRAK  
TELEBISTAK ETA ETREZRESNA ELEKTRIKO TORAK

lasterengo markak • Piztorik onak!  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**

Txarri etorbidea: 253 N • 48160 Irujo  
T: 944 539 332  
[www.elekma.es](http://www.elekma.es)



# Dan-dana ez da tan-tana



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Gabonetan azukeradun pentsu piloan ostantan, gozotik gazira etorri gara, 2017ko egunerokora. Urtarrilean txakurrak oinutsik dabilte eta erdal herrietatik etorkin txi-roak datorkiguz, asko bertoko bilakaturik. Dabid adiskidea orain dozena erdi urte txorierriratu zan sendiagaz, Be-

goñako pisua alokatu ondoren. Alokataileak Afrikako kontinentetik emigratuak dira, hileroko soldata txintxo-txintxo ordaintzen dabena.

Kontua da, portaleko atso batek argazkiak-eta ataratzen deusezala bai guraso afrikarrei, baita seme-alaba nerabeei be, hartan be, jadanik euskaraz bikain dakienei. Uri-safari fotografi-

koaren aurrean, senarrak –gorputz tantaiko baltz-baltzak– Dabidengana jo dau kexaka. Orduan, Dabid eta Miren emaztea –Bilboko udaletxean salaketa jarri ondorik– portaleko atso horrengana hurreratu dira.

–Zer dala-eta ataratzen deusezue argazkiak gure apopiloiei, Afrikatikoko sendikoei?

–Zergatik? Zuek ezin imajinatu daitezue zer nahaste eta astapala sortzen dabena “horreek” gauero.

–Zer dinozu Kastora andrea? Astrapalak sortu?

–Hara: gauero-gauero, euren siniskeria edo hetxizero kontuetarako zarata besterik ez dabe ataratzen. Hasten dira tan-tana jotzen, errezuaz eta dantzan, eta ez da aitaren semerik lo egin daitezunik.

–Asmatu egingo zenuen istorio hori, aizu? Zer dozu bakez bizi diran biztanleen aurka?

–Doazela euren herrialdera! Gure diru-laguntzen kontura bizi dira holokak!

–Azkenean, zertan amaitu da arazo?– dinotsat Dabidi.

–Bada, udaleko idatzia hartu dau atsoak sendia baketan ixteko aginduz, zigorrik hartu gura ez badau.

Beraz, irakurle, XXI. mendeko inmigrazioaren tragedia globalean –eta gure artekoan–, dan-dana ez da tan-tana.

 **ZAMUDIO**  
**Loteria Nazionala**

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
josuastorkiza@gmail.com

  
**MAYORISTAS INFORMÁTICOS**

**ENPRESETARAKO INFORMATIKA**  
**SAREEN MANTENIMENDUA**  
**ZERBITZU TEKNIKOA**

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio  
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

**ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA**  
Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



  
**SANTI MAMI**  
**ALAITARIA**  
Nerea Pedrosa Cal. 517  
COP. SANADERA ZAMUDIO BERRIO  
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15  
Faxa: 94 454 12 15

**KURREGOITI**  
**JATETXEA**

Lauroeta etorbidea, 27  
48180 Lodu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
[restauranteauregoiti.com](http://restauranteauregoiti.com)



  
**RUBÉN**  
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lefendakari Leizaola plaza, 3  
48170 Zamudio  
94 452 14 40



## Karakolak bizkaitar erara

t: Maite Atxalanabaso / a: nortexpres.com

### Osagaiak:

- Karakola bote bat (kilo bat).
- Kipula gorri kilo bat.
- Sei porru, alde zuria erabiltzeko.
- Bi berakatz ale.
- 12 piper txorizero.
- 200 ml olio.
- 200 gr urdai zuri iberiko.
- 200 gr txorizo.
- 100 gr pernila, takotxoetan.
- Gatza, ura eta pipermina (norberaren gustura).

### Prestatzeko era:

Hasteko, saltsa prestatu behar da. Horretarako, barazkiak fin-fin txikituko

ditugu, eta ordubetez su txikian astiro-astiro frijitu, olio apur batez. Piperrak ur epelean busti, ordu erdiz. Pulpa atera eta saltsari gehitu, uragaz. Guztia irakiten jarri ordu erdiz eta su txikian. Puregailutik iragazi.

Karakolak egiteko, urtu urdaia olio apur batez, txorizoagaz eta pernilagaz. Karakolen boteari ura kendu eta aurretik egindakoari gehitu. Su txikian sueztitu, 15 minutuz. Hori guzti hori alde aurretik egindako saltsari gehitu eta 30 minutuz irakiten eduki, su txikian.

Geldi itxi denbora tarte batean gustua hartzeko. Zenbat eta denbora gehiago itxi, orduan eta zapore hobea izango dau. Gomendioa bi egunetan gelditu (erreposan) itxia da.

## Etxeko sukaldaritza

### Makailo albondigak

t: Maite Lekerika / a: contigoenlplaya.com

### Osagaiak, 4 lagunentzako:

- 400 gr makailo (gezatuta).
- 100 gr urun.
- Arrautz bat.
- 4 koilarakada esne.
- 100 gr patata egosi.
- Berakatz buru bat.
- Pipermin pikante apur bat, txikituta.
- Gatza.
- Perexila.
- Frijituteko olio.

### Prestateko era:

Nahastu ondo irina, arrautza eta esnea, ore bigun bat egin arte. Itxi ordu erdi baten, pausetan.

Makailoa irekin ur apur batez. Atera, sukatu eta birrindu patata egosiagaz batera. Gehitu berakatzak, gindilla eta perexila, ondo txikituta dana. Nahastu ondo oreagaz. Ondoren, egin bolatxoak, koilara bigaz lagunduta eta frijitu olio ugaritan.

Zerbitzaterakoan, epel eta letxuga apur batez egin.



**GORBEIA MERTZERIA**

Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 855 90 08

**TXORIERRI MARMOLDEGIA**

Sukalde eta bainugeleako harriak  
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B.P. - 2. nabea  
48170 Zamudio (Bizkaia)  
T./F.: 94 608 01 41-2

**ASADOR FUENTENEberria**  
"ur eta itsasoko baserria"

Gosariak  
Afariak  
Enpresa-bazkariak  
Ekitaldiak  
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:  
Okela eta arraina  
bingarretan erreta

LEKUNBIZANZA 26  
ZAMUDIO (BIZKAIA)  
94 452 23 79  
www.asadorfuenteneberria.com

**PATXI KOOP**

FAJG KOOPERAZIA ELKARTEA  
Nafarroa nagusia - Daxos 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 94 522 587 - info@patxi.com - www.patxi.com

**Peñasko arraindegia**

Mendiko, 4  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 0808





## Umeekin zer irakurri?

### Piztiak bizi diren lekuan

Ana Apika

**Egilea:** Maurice Sendak.

**Argitaletxea:** S.L. Kalandraka Editora.  
Liburutegietan dago irakurgai.

Maurice Sendak oso ipuin egile arrakastatsua izan zen. 2012 urtean utzi gintuen. Sendaken hainbat liburu ditugu eskura, bai gaztelaniaz, bai ingelesez: *The Nutshell Library*, *In the Night Kitchen*, *Higglety Pigglety Pop!*, *The Sign On Rosie's Door*, *Outside Over There*, *Kenny's Window...* 1963an *Piztiak bizi diren lekuan* album ilustratua argitaratu zuen. Hainbeste denbora pasatu arren, liburu horrek gure irudimena pizten jarraitzen du.

Maxek, liburuaren protagonistak, otso mozorroa janzen du eta bihurrikeriak egiten hasten da. Gurasoek logelara bidaltzen dute, bertan lasaitzera, baina lo-

gelan, lasaitu baino, bat-batean zerbait zoragarria gertatzen zaio: Max oihanean agertzen da, basapiztia izango balitz bezala.

Max piztiak edo munstroak bizi diren lekura heldu da eta bere eskutik beste mundu batean murgiltzen gara: ez dakigu han gertatzen diren gauzak benetakoak edota amestutakoak diren, baina abentura itzela biziko dugu irakurleok. Umeak zein helduak isil-isilik geldituko dira istorioak kontatzen duen abentura amaitzen denean: oraindik beste mundu batean gaude? Edo agian hementxe bertan ditugun munstroen aztarnak somatzen ditugu?

Gure umeekin irakurri nahi badugu sei urte gorakoentzat dela esango nuke, txikiagoek istorioan agertzen den denboraren jokua agian oso ondo ulertuko ez dutelako.



#### AHOLKUA

Herriko liburutegiaz gain, liburutegi handiagoak ere badaude, adibidez Alhondigako mediateka (honetan haurtxokoa ere badago), Bilbon. Liburu mordo bat dago bertan eta, gainera, zapatuetan eta igandeetan irekita dago 21:00ak arte. Herritik atera gabe ere badugu liburutegien arteko mailegua zerbitzua. Horrela, beste liburutegietan dagoen edozein liburu eska dezakegu herriko liburutegian, eta, laster izango dugu esku artean.

MARMOLGINTZA  
**GOYO**  
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAR HILERRIAK  
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea  
48160 Derio, Bizkaia  
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

KAFETEGIA  
**IAZI JATETKEA**  
Jata kalea, 2 - DERIO  
Tel.: 944 54 29 56

HABAGITEGIA  
URDARITEGIA  
**IMAZ**  
MUNGIALDE ETORBIDEA,2  
TLFNOA: 94 454 10 75  
DERIO  
Eskerrik asko etortzeagaitik

## Erakusketak

### Derio

- > *Organikoak*, Jose Rica Bilbaoren oleoak eta margoen erakusketa. Otsailaren 7tik 27ra.

## Hitzaldiak

### Derio

- > *Biolentzia sare sozialetan*, gurasoei eskainia. Otsailaren 13an, 18:30etan, Sondikako Kultur Etxean.

## Ikastaroak

### Derio

- > Argazkilaritza aurreratua, 5 saio. Prezioa: 10-20 euro. Otsailaren 13a baino lehen izena eman behar da.

### Lezama

- > Labasu tailerra. Ondoren talo-tailerra egingo da. Otsailaren 12an, 10:30etan

## Ikuskizunak

### Sondika

- > Bertso afaria. Etxahun Lekue eta Oihana Bartra. Otsailaren 3an 21:00etan, Gaztañaga tabernan.

### Derio

- > *Caminamos para crecer*, La Zanja konpainiaren antzezlan. Otsailaren 17an, 20:00etan, Gurea Aretoan. Prezioa: 3 euro.

## Irteerak

### Sondika

- > Jatara irteera, Udalaren eskutik. Otsailaren 12an, 09:00etatik 15:00etara. Abiapuntua: Gorondagane eskola. Izen ematea: Udal liburutegian, otsailaren 8a baino lehen. Prezioa: 3 euro.
- > Guggenheimer bisita gidatua, Altzoraren eskutik. Otsailaren 16an.

### Zamudio

- > Castro-Valnera. Arroeta Mendi Taldearen eskutik. Otsailaren 12an.
- > Sasimartxo. Arroeta Mendi Taldearen eskutik. Otsailaren 19an, 08:00 / 10:00 (ibilbidearen arabera).

### Lezama

- > Irteera erraketekin, Gailur Mendi Taldearen eskutik. Otsailaren 11n, 08:30ean. Abiapuntua: herriko plaza.
- > Lunada. Jatetxe batean bazkalduko da. Izena ematea derrigorrezkoa. Otsailaren 19an, 09:30ean.

## Jaiak/ospakizunak

### Derio

- > Pintxo-pote eta animazioa, Txipli Txaplaren eskutik. Otsailaren 18an, 19:00etatik 22:00etara, goiko aldean.
- > Inauterietako ostirala. Puzgarriak eta umeentzako tailerrak, Derioko Udala eta AMPA Derio Txikiren eskutik. Otsailaren 24an, 18:00etan, eskolan.
- > Inauterietako larunbata. Jaitsiera, mozorro lehiaketa eta DJ saioa. Otsailaren 25ean, 18:00etan, Sollube kalean.
- > Gure Señeak Eguna. Kepa eta Arene VI. Memoriala. Otsailaren 26an. 10:30ean.

### Zamudio

- > Lagunandre elkartearen txokolatada. Otsailaren 3an, 19:30ean.
- > Santa Ageda: 1999an jaiotako neska-mutilek kantatuko dute Zamudio oso-tik zehar. Otsailaren 4an.
- > Inauteriak Gazte Estazioan. Otsailaren 24an, 19:00etan.
- > Mozorro-tailerra. Otsailaren 25ean, Udal liburutegian.
- > Inauteriak adintsuen etxean: tostada lehiaketa eta erromeria. Otsailaren 25ean, 18:00etan.

### Lezama

- > Lezamako inauteriak. Otsailaren 25ean, 19:00etan. Lehiaketetan eta herri afarian parte hartzeko izena eman otsailaren 21a baino lehen. Prezioa: 10-14 euro.

## Kirola

### Sondika

- > Binakako frontenis txapelketa. Otsailaren 5 eta 12an. Gorondabeko kiroldegian.

## Lehiaketak

### Sondika

- > Pintxo lehiaketa herriko tabernetan. Osagai nagusia: okela. Otsailaren 10ean. Martxoaren 10ean eta apirilaren 7an ere egingo da.

### Zamudio

- > Just Dance lehiaketa. Otsailaren 10ean, 19:30ean, Gazte Estazioan.
- > Twister eta mahai-jokoen lehiaketa. Otsailaren 17an, 19:00etan, Gazte Estazioan.

### Lezama

- > Mikel Zarate Haur Literatur Sariaren VIII. Edizioa. Oinarriak lezama.org web-gunean.

## Musika

### Zamudio

- > Ipar Alde abesbatzaren Santa Ageda kontzertua. Otsailaren 4an, 20:00etan.

### Lezama

- > Ekidazu Abesbatza taldearen kontzertua. Kantupoteoa herrian, Santa Ageda eguna ospatzeko. Otsailaren 4an, 19:00etan.
- > Ekidazu Abesbatzaren kontzertua. Otsailaren 24an, Begoñako elizan (Bilbo), 20:00etan.

## Bestelakoak

### Zamudio

- > Jostailuak biltzeko kanpaina. Zamudio eta Marokkoko ume babesgabeentzat izango dira. Otsailaren 6tik 24ra, Zamudioko Eskola eta Kultur Etxean.

**BOLALEKU**  
JATETXEA

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

Garaiole, 1 - LEZAMA  
94 455 41 10  
Jatetxeak  
Facebook

**Enaitz**  
TABERNA

Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak

94 455 42 15  
Garaiole, 74  
48196 Lezama

**TABERNA**  
**GAZTEDI**

Eguneko menuak  
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - gazteditaberna@gmail.com



berbalaguna.

KONTURATZERAKO

EUSKARAZ.



EMAN  
IZENA!

Ahaztutako hizkuntza freskatzeko,  
jende berria ezagutzeko,  
ilobarekin hitz egiteko.  
Beste batzuei hori guztia egiten laguntzeko.  
Nahi duzunerako, baina gozatuz.

Izen-emate epea: Irailean eta urrian

Kontaktua: BERBALAGUN | 635.75.35.95 | txorierri.berbalaguna@gmail.com

Antolatzailea



Babesleak



Laguntzaileak





**OTSAILA**

Taileri kalea 6 DERIO 94 406 36 02

**ban**  
BASERRIANTZOKIA

Otsailak 4, 22:30ean

**IGUANA Y LOS JUMILES**

(tex-mex) mexikadak

Otsailak 11, 21:00etan

**LOMOKEN HOBOKEN**

rock

Otsailak 18, 21:00etan

**MOONSHAKERS**

rock

Otsailak 19, 18:30ean

**AIKO TALDEA**

mozorro dantza  
tostadak eta txokolatea

Otsailak 24, 22:30ean

**EGARRI**

kontzertua

Otsailak 25, 22:30ean

**EZETZ**

erromeria

Otsailak 26, 11:00etan

**PILAZOAK**

umeentzat

